

# Annasate

P R E S S

1860kg  
Maitzak 7  
450. zont.



SUDC:  
35 urtez tinko lanean

IKUSPEGIA: IKER BARANDIARAN • EUREN IKUSPUNTUTIK: SARO MANRIQUE  
KIROL ELKARRIZKETA: JON DEL RIO • KULTURA ELKARRIZKETA: KEPA URIBARREN

# Ofiziale Elkarteen Gida

## Elektrizitatea

- **Aranzabal Koop. E.**  
Zerkaosteta, 15 ..... ☎ 943 79 68 21 / 670 57 53 83
- **Arrasate Elektrizitatea**  
Gipuzkoa etorbidea, 37 ..... ☎ 943 79 65 93
- **EYA**  
Iturriotz, 21 ..... ☎ 943 79 03 84

## Errotulazioa

- **Pando errotuloak**  
Gipuzkoa etorbidea, 6 (Legarre) ..... ☎ 943 79 79 70

## Igeltsaritza

- **Izcue Irurzun**  
Munar, 6 ..... ☎ 943 77 04 77 / 607 87 91 66

## Igeltsoak - Apaintzea

- **Pako eskaiolak S.L.**  
Markulete, 14 ..... ☎ 943 77 08 21

## Iturgintza

- **Txorrota**  
Nafarroa etorbidea, 5 atzealdea ..... ☎ 943 77 17 13 / 607 26 04 17

## Margoak

- **Apain**  
Matierna, 3 - 1 ..... ☎ 943 79 61 56 / 689 04 91 17
- **JOVI**  
Ferrerias, 36 behea ..... ☎ 943 79 12 87
- **Serafin margoak**  
Ferrerias, 14 ..... ☎ 943 79 94 00 / 639 41 50 73

# Noiz behinka irudiari uko

**D**enbora gutxi dela, apirilaren 23an, "Liburuaren Nazioarteko Eguna" egin zen. Baliteke, beraz, amaren, aitaren edo ez dakit noren egunaren arteko helburuekin sortua izatea, hau da dendariak beren probetxurako asmatu izana, produktu jakin batzuen kontsumoa areagotzeko asmoz.

Hala ere, ene ustetan, beste hauekin alderatuz, liburuak merezia dute bultzakada sinboliko hori. Zoritxarrez, ikus-entzunezko hedabideen aurrean irakurketak plaza oso txikia baitu eskuragai.

Badakizue, gure komoditate, inertziazko joera eta eusteko zaletasun ohiturei esker lortu du telebista duen arrakasta.

Eskerrak oraingoz ez dagoen "Telebistaren Nazioarteko Egunik". Falta



Iker Barandiaran

zitzaguna! Edo agian hobeto egongo balitz, oso adierazgarria izango litzatekeelako. Ez dago zalantzarik berau egon ez izanaren arrazoia zein den: tamalez, egun guztiak "Telebistaren Nazioarteko Eguna" direla. Ez dago tarteko atsedenaldirik. Egunero-egunero, adibidez jateko edo lagunekin egoteko (askotan barne)

erabiltzen dugun astia baino askoz denbora gehiago igarotzen du jende gehienak telebista aurrean; bizitzaren puska handi bat.

Ohikoena da jendeak bere lan, ikasketa, arazo, bizitza... etabarrez deskonektatzeko asmoz, telebista piztu

eta honetara konektatzeta. Txipez baino, entxufeen aldaketa da. Entretenezko eta lasaitzeko asmoz, berau irentsi. Bide bakarrek komunikazioa, noski. Zoritxarrez, etxe askotan telebista beste

edonor bezainbeste da edo gehiago. Ez da egun osoan isiltzen eta besteen aurrean inposatu egiten da etengabe. Gainera, etxeok edozein une libre duten bakoitzean, bere aurrean jarri eta isil-isilik hari so egoten dira. Ez zaie besterik bururutzen.

Dagoeneko ez da batzuetan bisitan joaten den laguna. Hantxe geldituko da bizitzen, ez da inoiz isiltzen eta betirako guztien atentzioa eskuratzea lortu du. Laster sukaldean sartuko zaizue, baita logelan ere, eta kanale desberdinen hedapenari esker, ugaldu ere egingo da.

Ez nago telebistaren aurka, bereziki filmengatik, nik ere noizbait ikusten baitut. Gauza guztiek bezala, bere alde onak eta alde txarrak ditu. Gakoa erabileran datza.

Zoritxarrez, gure denbora librearen esparru guztia bereganatua du eta moteldu besterik ez gaitu egiten. Honen aldean, penagarria da jendeak irakurtzeko duen zaletasun urria.

Beste ezaugarri ezagunen artean, irakurtzea ere, edukien barneratzeko ahalmena baita.

**"Telebistak bereganatua du gure denbora librearen esparru guztia"**

*"Atzetik lan handia egiten dugu, izugarria. Jendea horretaz konturatzea nahiko genuke"*

**SDUC elkarte**

**9.000**

**Bazkari prestatu zituen Auzo Lagunek Maiatzaren 1erako**

Maiatzaren Lehenean sekular bazkaria egin zen Iruñean, Lizarra-Garaziko sindikatuek deitutako kale agerraldian ostean. Auzo Laguneko langileak goizeko 03:30etan joan ziren lanera. Izan ere, 9.000 bazkari prestatu baitzizuten egun hartarako.

ITURRI ONETIK

**EPPk Batxilergo Teknologikoa utziko du**

Datorren ikasturtetik aurrera, Eskola Politeknikoak utzi egingo du Batxilergo Teknologikoa. Arizmendi kooperatiba arduratuko da horretaz. Eskoriatzako Almen eta Arrasate Ikastola-San Vitorrek hartuko dute Batxilergo Teknologikoa irakasteko ardura.

Arrasateri dagokionez, tailerrak Arrasate Ikastola-San Vitorren ezarriko dira. Lehen urteetan, hala ere, EPPren gidaritzapean irakatsiko da Batxilergo Teknologikoa. Oraindik lantzen ari dira eskualdatzeko hitzarmena, baina dagoeneko badakigu aipatutako ikastoletan egingo diren praktikek balio izango dutela Ingeniaritza ikasketak egiteko.

Hezibide elkarteak unibertsitate aurreko irakaskuntzaren %77 du bere esku Arrasaten.



**ARKO**  
ARRASATE  
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

**Argitaratzailea:** ARKO (Arrasate Komunikabideak) Oñatorra kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89  
E-mail: arrasatepress@readysoft.es  
Tel. mugikorra: 908 39 78 86

**Laguntzailea:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Joxe Aranzabal. **Kazetariak:** Marijo Deogracias, Ubane Maderia, Maider Osa. **Publizitateak:** Nerea Zallo, Arantza Lagunilla, Arantza Fdez. de Arriola. (Tel.: 943 71 23 91/ 943 71 23 82). **Administrazioa:** Agurtzane Gainerain (Tel.: 943 71 23 90). **Disenaua:** Maddi Trubuelo. **Asteburuetako berriemaketa:** Gontzal Landa. **Bekaduna:** Anartz Agirre. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Saila, Iker Barandiaran, Karmele Perez, Jose Man Velez de Mendizabal. **Banako arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 943 77 12 28).  
© ARRASATE PRESS. Tirada: 6.400. **Logo-Gordailua:** 1124/88. ISSN: 0214-4854. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Maddi Trubuelo.



Arrasateko Udaleren laguntza.



Gipuzkoako Foru Aldundiarren laguntza.



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

- Ostirala, 7**  
• Gauzez eta egunez: Zabala, Zarugalde
- Larunbata, 8**  
• Gauzez eta egunez: Ruiz, Maala
- Igandea, 9**  
• Gauzez eta egunez: Morales, San Andres
- Astelehena, 10**  
• Gauzez eta egunez: Azkoaga, Ferrerias
- Astearte, 11**  
• Gauzez eta egunez: Español, Iturriotz
- Asteazkena, 12**  
• Gauzez eta egunez: Korkuera, Musakola
- Osteguna, 13**  
• Gauzez eta egunez: Irizar, Erguin

## BEHARREZKO TELEFONOAK

- Eritetxeak**  
Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00  
Iguatorioa ..... 943 79 05 00  
Santa Agedako Ospitalea (gizonak) ..... 943 79 39 00  
(emakumeak) ..... 943 79 44 11  
Buru osasunerako zentrua 943 79 90 11
- Gurutze Gorria**  
Bergara ..... 943 76 55 76
- DYA**  
Antzuola ..... 943 78 71 57
- Anbulatorioak**  
Arrasate (Larrialdiak) ... 943 03 53 00  
• Txanda hartzeko: medikuntza orokorra eta pediatria 943 03 52 50  
• Espezialitateak ..... 943 03 53 11  
• Ikuskatzailea ..... 943 03 53 52  
• Kanpoko kontsultak: 943 03 53 11  
• Fax zenbakia: 943 03 05 14  
Aretxabaleta ..... 943 79 74 58  
Aramaio ..... (945) 943 45 51 16
- Anbulantziak**  
Gipuzkoako ambulanziaz 943 45 87 44
- Udaltzaingoa**  
Oñati ..... 943 78 04 11  
Bergara ..... 943 77 91 06  
Arrasate ..... 943 79 14 39  
Aretxabaleta ..... 943 79 10 52  
Eskoriatza ..... 088
- Ertzaintza**  
Arrasate ..... 943 79 71 99
- Suhiltzaileak**  
Udal taldea ..... 943 79 09 00  
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72  
Zubillagako Eskualde-Parkea ... 088
- Matxurak**  
Urak (udal zerbitzua) ... 943 79 09 00  
Argindarra (Iberduero) ... 943 12 01 62  
Gasa ..... 900 40 05 23  
..... 943 79 78 44  
..... 943 79 76 78
- Garraioak**  
Taxi ..... 943 79 12 22  
PESA ..... 902 10 12 10
- Hirugarren adinekoentzako zentruak**  
Iturbide Egoitza ..... 943 79 72 11  
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57
- Monterron liburutegia**  
Monterron ..... 943 77 01 05
- Irratia**  
Arrasate Irratia ..... 943 79 58 77

## XUME -XUME IRAKURTZEKO

“**A** Isil-isilik dago, mendi tontorrean”, gailurrean gailutxoan gailutzarra den antena erraldoia, edo ortzian “via satelitez” (izabel bidez) uhinak igortzen dituen gailutzar handia (gailutzar bitxia).

Hura isil-isilik egonagatik zarata dakar gailutxoetatik (telebisioetatik). Handia izanagatik, itzelak dira bere kumetxoak pilaturik, bildurik. Eta bildurik bildurra sortzen dute.

Herri osoan barrena, telebisio-irradi gabeko etxerik ez. Zer dira gailu horiek, nola funtzionatzen dute? Zergatik dituzte hainbeste erosle? Mamutzarrak, indarkeria itxuratiak, babalorak... eta! Dokumentalak, jope.

Oso kide ona asperrimendua erailtzeko omen. Edo aintzira antzinakoa, kide ordez.

Nork daki zer diren gailu horiek? Bat mekanikoa da eta elektrizista Ness ka. Eta berrogeita hemezortzian sortu zen lehenengoko telebista katea Madrilen.

Nork jarriko ditu legez kanpo gailutxo txar (zar) horiek? Txo, txe? Txinoren batek? Gizalegez noski, gizona! (...) Boterea. Edo telebisio-irratia puskatu eta bakea? Isil-isilik menditxo tontorra (eta hango antena) ez, gure etxea eta gure Guero-a, Axular. Aai! Iraultza. Ala iraultketa, zer nahiago duzu?

Bada, puskatu jada etxeko telebista-irratia, babalorea! Konpak diska eta walkmana ere bai, jakina. Hara! Inoiz Lenin-en batek legez konpontzen baditu telebisio-irradiak, lehenik eta behin zorianak emango dizkiot; berehala dilubioaren “esamezetan” sinistuko dut. Mundu bat telebisiorik gabe.

A zer polita! Mundua, ezta Elkano? Baina ludi hipotetiko horretan, telebisiorik gabeko horretan, ni dibulioan eta abar sinesten hasiko banintz ere, lasai egongo nintzateke, zerbaitek esaten dit eta, Babeleko hizkuntza euskerie, eskuara, euskara, euskera, uskara eta batua izan zela. (...)

Agur, bon buaias.

Jon Otero

## Publizitate teknikaria

Lankide berria dugu Arko-ko Publizitate Sailean: Arantzazu Fernandez de Arroiabe, 23 urteko aretxabaletarra.

Arantzazuk marketing eta enpresa administrazio ikasketak egin zituen Euskal Herriko Marketing Institutuan, Gasteizen.

Egun erdiz egingo du



lan, aldizkarirako eta telebistarako publizitatea lan-tzen. Ongi etorri!

*Sili Sili*

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 81 82

**UGARAN**  
jatetxea

Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE

**M**

**MEMESA**

Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25

# Zer deritzozu 500 m.tan lau semaforo jartzeari?

500 metroren bueltan bi semaforo gehiago —lau guztira— jarri ditu udalak Zigorrolan.



**Luis Baldezate**  
(42 urte)  
Udaltzaina

Nik uste gehiegi, baina beharrezkoak. Autoak abiada handiarekin pasatzen dira eta zerbait ipini behar da.



**Egoitz Arzamendi**  
(21 urte)  
Ikaslea

Gaizki, lehen bat ere ez, eta orain lau! Bat bai, zeren autoak azkar datoz, baina lau gehiegi dira.



**Ibai Urteaga**  
(20 urte)  
Ikaslea

Ondo, baina gehiegi. Autoak azkar datoz eta ondo dago semaforoak ipintzea zeren errepidea zeharkatzea zaila baita.



**Jesus Azkarate**  
(69 urte)  
Erretiratua

Oinezkoentzat ondo. Gai-nera, beharrezkoak dira, baina botoidunak izan beharko lirateke.



**Rosi Calleja**  
(30 urte)  
Etxekoandrea

Ondo. Errepidea zeharkatzeko punta batetik bestera joan behar zara pasabide bila eta gainera autoak ez dira gelditzen.



**Sonia Gutierrez**  
(29 urte)  
Langilea

Ondo, baina botoidunak, bestela auto ilara handiak egingo lirateke.



**Maria Laguna**  
(63 urte)  
Etxekoandrea

Ondo, batez ere oinezkoentzat. Agian gehiegi, baina ez dakit.



**Loli Gonzalez**  
(22 urte)  
Langilea


Logikoa da, istripu asko egoten dira eta jendeak dagoen bakarra errespetatzen ez duelako.

## LASER DEPILAZIOA

- Behin betikoa, azkarra, ez du minik egiten
- Depilazio sistemak, zerbitzu medikuaren bermearekin
- Aholkularitza eta aurrekontuak

### Itaca Zentru Mediku eta Estetikoa

Dr. Juan Carlos de Andrés Guerra.  
General Alava 7. GASTEIZ. Tel.: 945 13 92 56 RPS. 492/98



Uribarri, 26  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 20 51

Maiatzaren 1etik aurrera eskualdaketa  
**EGUNEKO MENUAK**  
Taldeentzako bazkariak igandeetan, alde zurretik eskatu

# Arrasate

## LANAK

### ZIGORROLAN

Semaforoak ipintzeko lanak.

### URIBARRIN

Aparkaleku lanak eliza ondoan.

### GELMA PAREAN


Udal biltegia handitzeko lanak.

### A-20 ETA ZALDISPEN

Oinezkoen pasabidea egiten hasi dira.

### JOSE LUIS IÑARRAN

Errepidea konpontzeko lanek segitzen dute.



**Biztanleak: 24.257**  
**Eremua: 33 Km<sup>2</sup>**  
**Garaiera: 211 metro**

## Eguraldiaren aurreikuspena



**OSTIRALA 7**

Ostarteak izango ditugu egunean zehar, baina lehen orduetan lainoak nagusituko dira.



**LARUNBATA 8**

Lainotua izango da larunbata eta tartekaeuria egingo du. Behera egingo du tenperaturak.



**IGANDEA 9**

Behelainoa goizaldean eta orduak aurrera joan ahala, eguzkia aterako da. Temperatura berriz igoko da.

## Ilargia



**Ilberria**

Gau iluna izango du maiatzaren 15ean, larunbata. Ilberria izango da eta.

## Mezak

### Parrokia

#### Larunbatean

19:00 (elebiduna)

#### Igandean:

09:00 (erdaraz)

11:00 meza nagusia (euskaraz)

12:30 (elebiduna)

### San Frantzisko

#### Larunbatean

19:00 (elebiduna)

#### Igandean:

09:00 (euskaraz)

10:00 (erdaraz)

11:00 meza nagusia (euskaraz)

12:30 (erdaraz)

19:00 (elebiduna)

### Uribarri

#### Larunbatean

19:00 (elebiduna)

#### Igandean:

11:30 (euskaraz)

12:30 (erdaraz)

### San Andres

#### Ostiralean

18:30 (Otoitz ordua)

#### Larunbatean

18:30 (Bezpera abestiak)

19:00 (elebiduna)

#### Igandean

10:00 (erdaraz)

11:00 (euskaraz)

12:30 (erdaraz)

### Santa Teresa

#### Larunbatean

19:00 (elebiduna)


#### Igandean

10:30 (erdaraz)

11:30 eta San Isidron (euskaraz)

12:30 (erdaraz)

**Urkuluko uraren maila %95**



## Urteurrena

Orain dela urtebete Arrasate Pressen:

- EBK aurrejubilazioen lege proposamena aurkeztu zuen Arrasaten, PPren proposamenari aurre egiteko.
- Antoñako saihsbidea egitea erabaki zuen udalak, Antoña eta Santa Teresa lotzeko.
- S. Andres Xake Taldea, Gipuzkoako bigarren.

**USTEAK USTE**

*Al Andalus*

**J**oan den ostiralean Arrasateko andaluzen etxea hobeto ezagutzeko aukera izan nuen. Aita zenaren urte meza izan genuen eta, orain urtebete moduan, Al Andalusera joan ginen tragotxo bat hartzera.

**Rafa Gomez Al Andaluseko lehendakariarekin egin genuen tril eta, gutariko batzuek ez zutela ezagutzen eta, etxea erakutsi zigun: ekitaldi aretoa, liburutegia, dantza aretoa, telebista gela, Rocioko Amabirjinari eskainitako kapera-txoa, terraza berria... Dena oso estilo politean jarrita. Atentzioa eman zidaten mahaien eta aulkien edertasunak eta baita lauza beiratzatuen politikak.**

**Taberna beteta zegoen, baina liburutegia eta dantza aretoak ere hartuta zeuden. Ikusten zen jendea badabilela eta erabiltzen dituela etxeko azpiegiturak. Oso bisitaldi atsegina izan zen.**

**Al Andalusetik badaramatza urte batzuk, hamar bai, eta aldi honetan finkatu egin da, herrian txertatu eta baita auzoan ere. Zorionak!**

Joxe Aranzabal



**XXI mendeko hezkuntza**

**\* Saro Manrique de Lara**

**A**pirilaren 6, 7, 8 eta 9an biltzar bat izan zen Arthur Andersen Zentroan, St Charles-en, Chicagotik 40 km ingurura.

Biltzar honetara joateko pribilegio izugarria izan dut, Jon Azua Eusko Jaurlaritzako lehendakariorde ohiak MCCko Javier Retegiri (Industriako sailburu ohiari) eta honek Hezibide elkarteari helarazitako gonbitari esker.

Arthur Andersenek munduko hezkuntza praktika egoikienei buruz gogoeta egiteko antolatuta izan zen biltzar hau, eta Etorkizuneko Eskolaz duten programatik abiatuta lortu diren esperientzia berriak partekatzeke.

Ikaragarriko baliabideak erabili ziren. Lau pantaila erraldoiren bidez, milaka kilometrorra zeuden ikastetxeen berri izan genuen.

Hezkuntza arloko jende ospetsuak parte hartu zuen: Russell Ackoff (Interact), Mort Egol (Arthur Andersen), Benjamin Zander (Bostongo Sinfonikoaren zuzen-

daria), Alan C. Kay (Walt Disneyko Garapen eta Ikerketarako lehendakariordea), Albert Hoser (Siemens Fundazioa), Dean Kamen (Deka), etab.

Jende asko ezagutu eta hainbatekin hitz egiteko aukera izan dut; oroitzapen ona utzi zidan Sadbury Valley School-eko zuzendariarekin izandako elkarrizketak. Duela hogeita hamar urte sortu zuen ikastetxe hori; ikaskuntzan eta zentroaren kudeaketan ikasleek Haur Hezkuntzatik behar duten autonomian oinarritzen du bere filosofia. Ikastetxe honetan erabaki mota guztiak ikaslearen esku daude. Ikastetxe honetan helduek bideak jarritzen dituzte ikasle zaharra-

goek gazteagoei irakasteko, eta hartzen diren erabakien artean urteko aurrekontuko partidak nola banatu ere saritzen da.

Hezkuntzaren, ikastetxearen eta ikaskuntzaren ulerkera aldatu egingo da datorren milurtekoan. Paradigma berri baten aurrean gaude: ikastetxeen helburuak beraietatik igarotako ikasleek beren burua hezi dutela pentsatzea izan beharko du.

Hauxe da orain esku artean dugun erronka. Hau lortzeko ikuspegi edo kontzeptu asko aldatu behar dugu: ikastetxea ulertzeko modua, edo zer den irakastea eta ikastea, zer den gure ikaslearen artean ikaskuntza autonomia bultzatzea, edo teknologia berrien gero eta garrantzi handiagoa ulertzea "ez helburutzat baizik eta beste baliabide bat bezala hartuta", eta azkenean ulertzea etorkizuneko gizon-emakumeen gaitasunak ez direla lanbide eza-guera eta garapenean bakarrik oinarritzen.

Biltzarrean etengabe errepikatu den ideia bat eman ez bukatu nahi dut: lehenengo urteek, lehenengo hezkuntza etapek duten garrantzi handia etorkizuneko gizon-emakumeak bete-betean garatu ahal izateko bide bakar bezala.

\* Hezibideko aholkularia

**“**  
**Hezkuntzaren eta**  
**ikaskuntzaren ulerkera**  
**aldatu egingo da datorren**  
**milurtekoan**  
**”**

**HIES**  
**EKIMENA**  
 Astelehen, astearte  
 eta ostiraletan  
 5etatik 8etara.  
**Tel.: 943 79 26 99**

**BITTORI**  
**ERRETEGIA**  
 Eguneko menua • Kartako menua  
**Especialitateak: legatz kokotxak eta txuletak**  
 Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

7

ostirala

■ ZINEA

*Payback*, Alai zineman, arratsaldeko 19:00etan eta 22:00etan.

■ HIES EKIMENAREN KOMIKIA

Hies Ekimenak *Soo Bitxo* komikiaren aurkezpena egingo du udaletxean. Hies Ekimenaren lehenengo Komiki Lehiaketaren sari banaketa ere egingo da, Jon Anduezak aurkeztua. Saioa 19:00etan izango da. Ondoren, luntxa.

■ PSE-EE-KO HAUTAGAIK

Arrasateko Marcos Vitoria elkarteak ekainaren 13an egingo diren herri hauteskundeetarako hautagaien aurkezpena egingo du Mondragon Hotelean, arratsaldeko 19:30ean. Hantxe izango dira Jesus Egiguren, Gipuzkoako PSE-EEko lehendakaria, eta Guillermo Etxenike, aldun nagusi izateko hautagaia.

■ KONTZERTUA JAM ARETOAN

*Steve Wynnek* emanaldia eskainiko du Bergarako Jam aretoan, Bergarako Udalak antolatuta. Emanaldia 22:00etan izango da.

8

larunbata

■ ZINEA

Alai zineman, arratsaldeko 17:00etan, *Mi gran amigo Joe*, eta *Payback* 19:30ean eta 22:00etan.

■ IRTEERA MENDI BIZIKLETAN

Besaideren Mendi astearen barruan Arrasate-Tellamendi-Kurtzeta-Asensio-Untzilla-Arrasate mendi irteera egingo da, goizeko 09:00etan, Musakolako kiroldegitik abiatuta.

■ JANARI BILKETA

Gipuzkoako Janari Biltzokiak janari bilketa egingo du Eroski hipermerkatuan Gipuzkoako behartsuen artean banatzeko.

■ IKASTOLAREN EGUNA

Arrasateko Ikastolak Ikastolaren Eguna ospatuko du. 10:30etik aurrera kirol ekintzak, puzgarriak, gastronomia feria, herri dantzen emanaldia eta areto dantzen emanaldia.

■ AL ANDALUS KULTURA ASTEA

X Kultura Asteari ekingo dio Al Andalus elkarteak. 19:00etan *Alegria de la Sierra* taldearen emanaldia. 20:00etan erregina eta oho-

rezko damaren aukeraketa. 24:00etan gaupasa flamenkoa.

■ KORAL ELKARTEAREN EMANALDIA

Goikobaluk kontzertu berezia antolatu du bere X urtemuga ospatzeko. Bilboko Korral Elkarteak Brahmsen *Requiem*a eskainiko du San Frantzisko elizan, arratsaldeko 20:15ean. Hantxe izango da Bilboko Musika Eskolako Jesus Guridi Orkestra, Gorka Sierrak zuzendua.

■ KONTZERTUA GAZTETXEAN

*Dark Faith* taldea arituko da Gaztetxean, gaueko 22:00etan.

■ KONTZERTUA JAM ARETOAN

*GBH* eta *Eskizofrenia* Rock taldeek kontzertua eskainiko dute Bergarako Jam aretoan gaueko 22:00etan. Sarrera 1.800 pta kostako da

9

igandea

■ ZINEA

*Mi gran amigo Joe*, Alai zineman, arratsaldeko 17:00etan eta *The Faculty* 19:30ean eta 22:00etan.

■ MENDI ASTEA

Besaide Mendi Elkarteko lagunek zuhaitz bat landutako dute Besaideko monumentuaren ondoan, 12:00etan hildako lagunak omentzeko.

■ AL ANDALUS KULTURA ASTEA

12:30ean domino txapelketa, 13:00etan ohorezko ardoa elkarteko lehendakariarekin. 18:30ean Garcia Lorca antzerki taldearen emanaldia. 19:30ean *Sueños de Andalucía* dantza taldearen emanaldia.

■ KONTZERTUA JAM ARETOAN

*Gamma Ray*, *Steel Prophet* eta *Roland Grapow* arituko dira Bergarako Jam aretoan, arratsaldeko 20:00etatik aurrera. Sarrera 2.500 pta kostako da.

10

astelehena

■ ZINEA

*The Faculty*, Alai zineman, arratsaldeko 19:00etan eta 21:30ean.

■ TXISTU KONTZERTUA

Arrasate Musikaleko txistu taldeak kontzertua eskainiko du Arrasate Musikaleko areto nagusian, arratsaldeko 19:30etik aurrera.

Altzariak  
Diseinua  
Apainketa  
**M ARENAZA**

Bizkai, 1 • ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 08 07

**TTUKUN**

Fotokopiak  
Liburu josteak  
Fotokopiak koloretan  
Planoen kopia  
Offset-a

Ferrerias, 23 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 46 62

**“PAL”**

burdindegia,  
brikolage  
eta tresneria

Uribarri etorbidea, 3  
Tel.: 943 79 31 99 ARRASATE

**ARRASATE  
HOTELA**



Biteri, 1 Tel.: 943 79 14 16  
ARRASATE



# 11 asteartea

■ **ZINEA**

*The Faculty*, Alai zine-  
man, arratsaldeko 19:00etan  
eta 22:00etan.

■ **GURASOENTZAKO  
BILERA**

SFX ikastolako DBHko  
azkenengo urteko ikasleen  
gurasoekin bilera egingo da  
18:00etan, Ferixalekuan.

*Kontu Kontari* saioa eskaini-  
ko du 10:00etan eta 11:30ean.  
14:30ean, hitzaldia eskaini-  
ko du Txus Kongilek guraso-  
entzat. 15:00etan ludoteka  
saioa eta solasaldia Parko Aris-  
tirekin.

# 13 osteguna

■ **ZINEA**

*No se lo digas a nadie*  
Amaia antzokian 21:30ean.

■ **MUSAKOLAKO  
HERRI ESKOLAN**

10:00etan Xake txapel-  
ketako finala. 13:00etan Eus-  
kal Herriko kirolak. 14:30ean  
lantegiak Txatxilipurdirekin.

■ **AL ANDALUS  
KULTURA ASTEA**

Gazteen eguna ospatuko  
dute. 18:30ean *Garcia Lorca*  
gazte taldearen emanaldia.  
19:30ean mahai ingurua.

■ **HERRI URRATS 99**

Debagunek autobusak  
antolatu ditu Senperen egin-  
go den Herri Urratsera joateko  
maiatzaren 9an. Autobusak  
08:00etan, Garibaitik.

■ **UDAKO KIROL ESKOLA**

Uztailaren 1etik 10era  
bitartean egingo den udako  
kirol eskolan parte hartzeko  
deia egin zaie lehen hezkun-  
tzako 3. mailatik 6.era arte-  
ko eta DBHko 1. eta 2. mai-  
lako ikasleei. Egonaldia Espi-  
nosa de los Monteros (Burgos)  
herrian egingo da. Izen  
ematea maiatzaren 10ean  
amaituko da.

■ **AED LEHIAKETAK 98**

Lehiaketan parte hartu  
zutenek eta saririk jaso ez  
zutenek AEDren egoitzara  
egin dezakete, beren lanak  
jasotzeko.

■ **MENDIKO ESKI  
ZEHARKALDIA**

Besaide Mendizale Elkar-  
teak mendiko eski zeharkal-  
dia antolatu du Anetora, maia-  
tzaren 15 eta 16rako. Irtee-  
ra maiatzaren 14an egingo da,  
automobiletan. Izen ematea  
maiatzaren 10ean eta 11n  
izango da Besaideren egoi-  
tza, 19:30etik 20:30era.

■ **AL ANDALUS**

**KULTURA ELKARTEA**

Asteartean, maiatzak 11,  
65 urtetik gorako zaharrei  
omenaldia egingo zaie Al  
Andalus elkartearen. Hurrengo  
egunean Haurren eguna ospa-  
tuko dute: 18:30ean anima-  
zioa, 19:30ean, txokolatada  
eta 20:00etan, haurrentzako  
jolasak.

Datorren asteko ostira-  
lean, berriz, *The Jurassic Band*  
taldeak emanaldia eskainiko  
du Al Andalus elkartearen,  
19:00etan. 20:30ean poesia  
emanaldia. 22:00etan Goiko  
Balu abesbatzaren emanaldia  
eta 22:45ean areto dantzen  
emanaldia, Natalio Maizte-  
giren dantza eskolarekin. Al  
Andalus elkartearen X kultu-  
ra asteak larunbatean, maia-  
tzak 15, segituko du.

■ **JABILOREN ALDEKO  
ERAKUSKETA**

Jabilorekin lan egin duten  
lagunek, Santamañako mar-  
go taldeak eta Arrasateko  
Margo Taldeak arte erakus-  
keta antolatu dute Harresi are-  
toan. Inaugurazioa 19:00etan  
izango da eta maiatzaren 30a  
arte egongo da ikusgai.

# 12 asteazkena

■ **MUSAKOLAKO  
HERRI ESKOLAN**

*Oihulari Klown* taldeak

## Euskal Herritarrok Zurekin Ekitaldi politikoa

Udal Hauteskundeetarako  
programaren aurkezpena

Arrasateko Udalerako  
hautagai zerrendaren aurkezpena

Hizlariak:

Karmele Aierbe  
Mahai Nazionaleko kidea  
Xabier Zubizarreta  
Alkategaia



Herriko Plazan  
Astlehena, Maiatzak 10  
Arratsaldeko 19:00etan



Euskal Herritarrok

## astea bi hitzetan

### ■ Maala eta Erdiko kale hankaz gora

Joan den astean Maalako errebala eta Erdiko kalea konpontzen ibili ziren. Galtzadarriak biltzen zuen materiala kendu eta desberdin bat jarri zuten. Egun pare bateko kontua izan zen. Guztira 2.700.000 pta erabili dira kale biak txukuntzen. Ea oraingoan asmatzen duten!

Musakolan, berriz, bi zirkulazio argi berri jartzeko lanean ibili ziren. Bat Birekurtze ondoan eta beste Gipuzkoa Etorbideko 46an, Meneta tabernaren ondoan. Biak botoidunak izango dira, oinezkoek eragitekoak. Horrela, Birekur-

tze eta Meneta artean lau semaforo egongo dira. Helburua: ibilgailuen lastertasuna txikitzea, istripuak saiheste aldera.

### ■ Ikasleak greban

Joan den ostiralean bigarren zikloko ikasle asko —Institutukoak, San Viatorrekoak eta Mondragon Unibertsitatekoak— kalera atera ziren, Duina Ikasle Koordinadorak deituta. Grebaren eta kale agerraldiaren helburua zen salatzea ikasleek bizi dituzten bizi baldintza eskasak, bai ikasle garaian eta baita lana bilatzeko orduan. Kale agerraldiak Ertzaintzarekin egin zuen topo Muxibarko biribi-

lean. Eskolarako bidea espaloitik zehar egin behar izan zuten.

### ■ Mendi astea

Urtero bezala, mendi aste interesgarria antolatu du Besaide Mendi Elkarteak aste honetarako. Lehendabizi "Udazkena eta Petra" ikuskizuna eskaini ziguten. Bigarren egunean Patagoniatik zehar abiatu gintuzten. Hirugarrenean Anapurnatik Patagoniara eta Atlasetik Huayhuashera. Choyu ere izango dugu mintzagai. Mendi asteari bukaera emateko, arbola bat landatuko da hildako kideen omenez.



### ■ Fagorren jarduera ona

Urte ona izan zuen iazkoa Fagor Elektratresna kooperatibak. Joan den astearteko batzar nagusian jakitera eman zuten, Fagorrek 3.400 milioiko irabaziaz izan zituen eta 500 lanpostu berri sortu zituen, Bergarako Geyser Gastech-ekin batera.



LKS Intelcom-en bezerorik garrantzitsuenak hauek dira: Euskadiko Kutxa, Ikerlan, Fagor taldea, Ulma, etab. Nahiz eta Bartzelonan, Burgosen, Kantabrian eta estatuko beste hainbat tokitan ere bezero inportanteak izan, gaur egun gure bezero gehienak inguruko enpresak dira. Gure helburua da gure zerbitzuak merkatu eta eremu berrietara zabaltzea. Horretarako, urte honen erdi aldean merkataritza jarduera berriak bultzatuko ditugu bai Frantziako hegomendebaldean eta baita Gaztela-Leonen ere”.

**ALEX ZABALA**

TU-Lankide

1999ko martxoa

# HIZKUNTZA IKASTAROAK ATZERRIAN

- Gazteentzako ikastaroak
- Enpresa profesionalentzako ikastaroak
- Etorbizuneko profesionalentzako ikastaroak
- Hizkuntza irakasleentzako ikastaroak

**EAS - VELE**

San Martzial, 39 1 - C. 20005 Donostia  
Tel.: 943 42 80 60. Faxes: 943 42 14 79

**HEZKUNTZA JARDUNALDIAK**  
Maiatzaren 8an, zapatua, egun guztian zehar, Donostiako Maria Cristina Hotelean.  
**EAS-VELE HAN IZANGO DA**  
Zatuz zu ere!



# Nortasun Agiriak Arrasaten egingo dira

Hemendik aurrera, nortasun agiria Arrasaten bertan egin eta berritzu ahal izango da. Izan ere, Espainiako Barne Ministerioak bulego bat jarriko du Arrasaten Deba Garai osoko nortasun agiriak hemen egiteko.

Oraindik erabakitzeke dago bulegoa non jarriko den. Orain artean IMI zegoen bulegoetan, Arrasate pasealekuan, egiten ziren lan horiek behin behineko, ministerioko funtzionarioak etortzen zirenean. Hori dela eta, hasiera batean behintzat, badirudi bulego berria ere hantxe jarriko dutela.

## EGIN BEHARREKOA

Nortasun agiria berritzu nahi duenak tabako dendetan saltzen duten inprimakia bete eta udaltzaingoaren bulegora



Nortasun agiriak egiteko behin betiko bulegoa jarriko da Arrasaten.

eraman beharko du, nortasun agiriaren fotokopia batekin. Han zenbaki bat emango zaio, eguna eta ordua zehaztuz. Eguna iritsi baino lehen, udaltzainek abisatuko diote joateko.

— Karneta lehen aldiz egin behar dutenek, ostera, txanda

hartzeko beharrezkoa izango dute nortasun agirirako jaiotze ziurtagiri berezia (berde kolorekoa) eta tabako dendako inprimakia.

Nortasun agiriak egin eta berritzeko modu hau Espainiako probintzia gehienetan dago aspalditik ezarrita.

## Udaltzaingoaren oharra

Arrasateko Ikastolaren jaia dela eta, larunbat goizean kontuz ibili beharko dira auto gidariak. Udaltzaingoak jakinarazi digunez, ezin izango da ibilgailurik utzi Otalora kalean, Maalako biribila eta San Frantziskokoa lotzen dituen tartean. Ezta Txoko taberna eta Maalako biribila lotzen dituean ere.

Bestetik, goizeko 07:30-etik arratsaldeko 15:00ak arte moztuta egongo da Maalatik Muxibarrera doan bidea. Beherantz joan nahi duenak azokatik bueltan jo beharko du.

Haurren segurtasuna ziurtatzeko hartu dira neurri hauek. Beste urteetan ere hartu izan dira, eta inoiz ez da arazorik izan jendearekin.


Hori dela eta, udaltzaingoak eskatu du larunbat goizeko 07:30etarako, mesedez, autoak aipatutako lekuetatik kentzeko. Barkatu eragozpenak.

# Jimenok talde sozialista utzi du

Paco Garcia alderdikidearekin izandako liskarrak eraginda, Jose Ignacio Jimenok utzi egin du udalbatzako talde sozialista, nahiz eta legealdia bukatu bitartean, lanean segituko duen zinegotzi bezala.

Hori dela eta, asteleheneko osoko bilkuran Ezker Batuko eta PPko zinegotzien artean eseri zen.

Kaleratu duen prentsa oharrean dioenez, erabaki horrekin "ez dio kalterik sortu nahi PSE-Eeri, bat datorelako honen politikarekin". Hala ere, gogor kritikatu du Paco Garcia alderdikideak berarekin izan duen jarrera.



EB eta PPren artean jarri zen Jimeno, PSE-EEtik aparte.

Antzaenez, honek hamaretik zeroko kalifikazioa eman dio Jimenok zinegotzi moduan eta bozeramaile bezala egin duen lanari.

Honen guztiaren aurrean, Arrasateko PSE-EEK ez du inolako adierazpenik egin nahi izan. Orain zinegotzi bat gutxiago izango du.

## Arrasate Ikastola

Hona hemen Arrasate Ikastola sortu berriak erabiliko duen anagrama berria. Ainara eta Maialen Sagarna usurbildarrak izan dira egileak. Arrasateko alde zaharra erabili dute oinarri moduan, "Herria eta Ikastola bat eginik, euskal kultura eta hizkuntza munduratzeko xedearekin".



# Osoko Bilkura istilutsua eta luzea

Luzea eta nahasia, halakoxea izan zen maiatzari dagokion osoko bilkura. Lehendabizi Pedro Mertzanen kaleratze-ari buruzko bilkura berezia egin zen. Ostean, osoko bilkurari ekin zitzaion, 23 gai landuz. Hori bai, ondo kostata. Izan ere, legeak agintzen duenez, osoko bilkura deitu eta bi egun laga behar dira hura egin aurretik. Dirudienez, ez ziren konturatu larunbata jai eguna zela eta ondorioz, udalbatzak gai zerrendan zeuden gaiak landu edo ez bozkatu zuen aurre-egin aurretik.

22 gai zeuden guztira zerrendan, baina azken orduan, Senideak elkarteak aurkeztutako mozio bat ere gehitu zen.

Gairik aipagarrienak kontutako dizkizuegu.

## GARABI ZERBITZUA

Datorren hilabetean jarriko da abian. Lekuz kanpo utzita dau den mota guztietako ibilgailuak erretiratzan hasiko dira, beraz. Dornier enpresa izango da lan hau beteko duena.

Honela bada, norbaiti garabiak ibilgailua eramanez gero, isun bat ordaindu beharko du, eta baita beste diru kopuru bat ere ibilgailu hori Gelma ondoan egiten ari diren udal biltegitik atera ahal izateko. Honetaz gain, ibilgailua eramanez eta bi eguneko epean biltegitik atera ezean, gainordain bat ordaindu beharko da pasatzen den egun bakoitzeko. Garabiak mota guztietako ibilgailuak eramanez



Eguediko 12:00etan amaitu zen udal batzarra.

ditzake. Bizikletatik hasi eta kamioietara heldu arte. Ibilgailu mota bakoitzari diru kopuru jakin bat ezarriko zaio biltegitik atera ahal izateko. Udaltzainburuak jakinarazi digunez, diru kopuru hauek oraindik zehazteke daude. Garabi zerbitzua asteko zazpi egunetan jarriko da.

## BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZAK

Babes ofizialeko 92 etxebizitza egingo dira Arrasaten Zerrajeraren lurretan. Horretarako Eusko Jaurlaritzaren eta Arrasateko Udalaren artean lankidetzat hitzarmena sinatzea erabaki zen.

EB eta HB ez zeuden ados erabakiarekin. Ezker Batuaren ustez, hitzarmenak ez du zehazten lanak noiz hasiko diren ezta nork egin behar dituen ere. Orohar, gauzak ez daude oso argi alderdi honen iritiz. Hori dela eta, abstenitu egin ziren alderdiko bi

zinegotziak.

HBren ustez, babes ofizialeko etxeak egin behar diren tokia ez da batere ona. Bestetan pasatu den moduan, babes ofizialekoak izatearren edo, baztertuta gelditzen dira. Honetaz gain, lan hauek egin eta etxebizitza kudeatzea ez litzateke Jaurlaritzaren eskuetan utzi behar, Udalak parte hartze zuzenagoa izan beharko luke. Era berean, zehazteke dago horietako zenbat etxebizitza izango diren alokatzeko eta zenbat saltzeko. Honengatik, Herri Batasunak aurkako botoa eman zuen.

## INTSUMISOAK UDALTZAIN

Azkenik, bi udaltzainen beharra dela eta, eztabaida piztu zen puntu honetan, ezartzen zelako intsumiso direnak ezin direla lanpostu horietara aurkeztu. Era berean, puntuan esaten zenez, Arkauten erabaki-

ko lukete zeintzuk diren postu hauek betetzeko pertsona egokiak.

Bi puntu hauek, gogor kritikatu zituzten HBk eta EBk. Bi hauen ustez, batetik Arrasateko Udalak berak erabaki beharko luke zeintzuk diren herrian lan egiteko pertsona egokiak. Bestetik, aldez, Arrasateko Udala Eudimaren partaide den aldetik, beti ere intsumisoen alde egin beharko luke eta ez aurka. EA ere ados zegoen arrazoi hauekin. Ondorioz, onartu egin ziren aipatutako bi zuzenketak.

## IHESLARIEN ALDE

Senideak elkarteak Arrasateko iheslari biren aldeko mozio bat aurkeztu zuen. Elkarteko kide den Luis Pagoagak azaldukoaren arabera, Arantxa Sasiain eta Pilar Mondragon arrasatearren egoera larria da. Batetik, Arantxa Sasiaini kartzela zigorra gaur bukatzeaz gain, iheslari paperak kartzelan zegoela irauungi zitzaizkion. Ondorioz, beldurrez dabilta ostiraletik aurrera Espainiaratuko ote duten. Bestetik, Pilar Mondragonek ere arrisku bera du, maiatzaren 21ean bukatzen baitzaio kartzela zigorra. Hori dela eta, 11. egunez gose greban dirau.

Mozio berezi hau onartu egin zen EAJren, EAren, EBren eta HBren aldeko botoekin. PSOEek eta PPK aurka bozkatu zuten eta Jimeno abstenitu egin zen.


**beatriz**  
oinetakoak  
eta poltsak  
Erdiko kale, 11  
Tel.: 943 79 14 33  
ARRASATE

  
EGUZKIGRAF  
inprimategia  
Industrialdea 1-0-4  
Finca: 791844  
Fax: 792941  
ARRASATE

**FELIPE  
MADINA  
ZURAK**  
Zarugalde, 40 ARRASATE  
Tel.: 943 79 13 78

# Epaileak dio Mertzanen kaleratzea bidegabekoa dela

Onartezintzat jo zuten Herri Batasuna eta Ezker Batua alderdietako udal ordezkariak Pedro Mertzanen auzian Arrasateko Udalak hartutako jarra. Joan den asteleheneko udal batzarrean mozioa aurkeztu zuten bi alderdiek udal batzarrean. Hantxe bi eskaera egin zioten udal gobernari. Batetik udalak Gelmari Pedro Mertzan berriz lanean hartzeko eskatzea eta bestetik, Mertzanen aurka udalak jarri zuen salaketa kentzea. Baina udal batzarrak ez zuen onartu mozioa. Hori dela eta, ESK sindikatuak eta bi alderdi politikoetako ordezkariak, Xabier Zubizarretak eta Joseba Ugaldak, prentsaurrea egin zuten astelehen arratsaldean. Hantxe onartezintzat jo zuten udalaren jarrera. Udalak adierazi zuenez, Pedro Mertzanen kaleratzea ez da udalari dagokion gaia. Argudio honen erabat aurka agertu ziren Zubizarreta eta Ugaldak "herritar baten



Astelehenean prentsaurrea egin zuten ESK sindikatuak eta HB eta EB alderdietako udal ordezkariak.

kaleratzea beti da eta, udalaren gaia”.

Udalak Pedro Mertzanen aurka jarritako salaketari dagokionez, epaiketa Bergarako auzitegian izango du maiatzaren 31n, alkatearen agindua ez betetzeagatik, udal batzar aretoan itxialdia eta

baraua egin zituenean.

## BIDEGABEKO KALERATZEA

ESK sindikatuak aditzera eman zuenez, Eibarko gizarte auzitegiak bidegabekotzat jo zuen Pedro Mertzanen kaleratzea. Epaian irakur daitekeenez,

“Mertzanen aurka hartutako erabakia neurrigabekoa da. Lanpostura berandu heltzeagatik bestelako zigorrak daude eta langilea kaleratzea gehiegizkoa da”. Hori dela eta, Gelmari ia 4 milioi pta.ko kalte ordaina ezarri dio Eibarko auzitegiak.

## Jesus Guridi Orkestra Arrasaten

Goikobalu Abesbatzak hamar urte betetzen ditu aurtengo udaberrian. Hori dela eta, larunbatean Bilboko Jesus Guridi Orkestra izango da Arrasaten, San Frantzisko elizan kontzertu bat emateko. Iluntzeko 20:15ean hasiko da kontzertua Gorka Sierraren zuzendaritzapean.

1987 eta 1988. urteetan Jesus Mari Arzek eta Anton

Zumaldek eginiko lanari esker sortu zen Goikobalu Abesbatza urtebete geroago.


Luis Ignacio Ruiz de Alegria izan zen lehen zuzendaria. Harrezkero makina bat kontzertu, sari eta baita bidaiak ere egin dituzte: 1994. urtean, lehenengo saria irabazi zuten; 1995ean “Euskaldunon kantak” izeneko konpaktoa grabatu zuten.



### URRATS

AHOLKULARITZA

GARIBAI, 3  
Tel.: 943 79 87 74  
ARRASATE



## Danona

KARROZERIAK

**Konponketak, txapa eta pintura**


Musakola auzoa, 15 • ARRASATE • Tel.: 943 79 58 06

## Lore

Lurrindegia

Olarte kalea, 10 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 52 50

Osak & Kikilgo Eitibak



## EUSKAL GIROA ALEMANIAN BARN

San Viator Ikastolako batxilergoko 2. mailako ikasleak Munichen daude argazki honetan, Tolosako Laskurain Ikastolakoekin batera. Europan zehar 5.000 km. baino gehiagoko bidaia egin dute. Aldameneko argazkian, berriz, Heidelbergeko plazan trikiti eta txistu soinuek lagunduta Josu Sarasua irakaslea da banakoa dantzatzen dabilena. Irakasleak ere ez ziren dantza



## MARRAZOAK IKUSTERA

Txatxiliko larunbateroko taldea Donostiako Aquariumean izan zen. Goizean goiz jaiki, autobusean sartu eta arratsaldeko 14:00ak arte ibili zen 3 urtetik 12 urtera arteko neska-mutil taldea marrazoak ikusi eta haiei jaten ematen, poz-pozik. Modu honetan, Txatxilikoek amaiera eman diete larunbateroko ekintzei.

## AUPA ARAMAIO FT !!!

Hauek dira Aramaioko futbol taldekoak. Arabako kopa irabazi berri dute Gasteizko Jesus Obrero taldeari irabazi ostean. Hauetxek dira txapeldunen izenak goitik hasita: Ibai, Pedro Mari entrenatzailea, Andoni, Iker, Aitor, Alberto prestatzaile fisikoa, Jon, Josu lehendakaria, Gillen, Mikel eta Martin. Zorionak guztioi Nerea, Maria, Tamara eta Amaia partetik.





## 20 URTEREN OSTEAN... TXAPELDUN!

Hori bai paella goxoa jan zutena San Andresko auzokideek auzoko jaietan zapatuan. Roberto Berbis barrakeroa harro asko aritu zen gero berak egindako paella irabazlea banatzen. Izan ere, hogeitaz daramatza lehiaketan parte hartzen. Zorionak, beraz!

## IZENAK

### Elena Errasti

37 urteko aramaioarra da, maiatzaren 3a ezker, San Frantzisko Xabier ikastolako zuzendari berria. Ikasketaz irakasle, Euskal Filologia bukatzen ari da EHU. Euskara irakaslea izan da hamabost urtez. Azken lau urteetan, bestalde, ikasketa burua izan da.



## AUTO TXIKIEKIKO ZALETASUNA GORA

Maiatzaren leian San Andresen izan zen Auto Telegidatuena Txapelketan 19 gidarik parte hartu zuten. Gehienak Arrasatekoak ziren arren, Gasteiztik eta inguruko herrietatik etorritakoak ere baziren.

## ARANTZAZUTIK TENERIFERA

Dotore daude, ezta? Bihar Abel eta Yoli askoz ere dotoreago egongo dira, beraien ezkonteguna baita. Arantzazun ezkonduko dira. Ondoren Tenerifera doaz. Zorionak bikote zuen lagunentzat! Ondo ibili!



# IRATI TABERNA

Ferrerias kalea • Tel.: 943 79 56 11  
ARRASATE

## BASABE JATETXEA

Menu eta afariak  
Boda eta banketeak  
Tel.: 943 79 91 84

ARETXABAETA

# Zarugalde Klinika: etxeko animalien eritetxea

Luis Zubiagirre oñatiarrak eta Ander Arrieta tolosarrak Zaragozan ezagutu zuten elkar, Albaitaritza Eskolan. Ikasketak bukatu ostean, Donostian hasi ziren lanean, etxeko animalien ospitale batean. Han hiru urte igaro ostean, beren kasa hasia erabaki zuten, Tolosan. Gaur egun bi ospitale dituzte: Ibaiondo izenekoa Tolosan eta Zarugalde Klinika Arrasaten. Hemen Luis Zubiagirrek egiten du lan, Mikel Perez albaitari oñatiarraren laguntzarekin. "Orain sei bat urte", dio Luisek, "horrelako eritexe bat baino ez zegoen inguru honetan. Horregatik, erabaki genuen jendeak ondo hartuko zuela bigarren aukera bat. Harrezkero beste bi irerki dira".

Batez ere txakurrak, katuak eta konpainiako animaliak oro har tratatzen dituzte. Noiz edo behin dortokak, txoriak edo hamsterrak, baina askoz ere gutxiago. Txakurretan gehien setterra, pointerrak eta alemanak. Hala ere, gero eta txakur txiki gehiago ekartzen dituzte eta baita katuak ere.

"Ehiztariak, baserritarrak eta kaleko partikularrak etortzen zaizkigu batik bat. Orain urte batzuk ehiztariak eta base-



Luis Zubiagirre eta Mikel Perez "Harri" txakurrarekin. Maiatzean txakurrentzako ile apaindegia ezarriko dute.

rritarrak ziren nagusi, baina gaur egun partikularrak ia erdia izatera iritsi dira".

## OSPITALE TXIKI BAT

Gaixotasunei aurrea hartzeko lan asko egiten dute Zarugalde Kliniketan: txertoak ematen dituzte. Gaisorik datozen animaliak sendatzen ere eskubete lan izaten dute: bixixoak kentzen, katarroak eta behar-rakoak osatzen, adibidez.

Ebakuntzak ere egiten dituzte: animaliak antzutzeko (etxeko katuen artean %90 irenduta omen daude), tumor-rak kentzeko edo apurturiko

hezurrak konpontzeko.

Hori guztia egiteko ondo horniturik dute ospitalea: X izpietako gela, ospitalizazio gela, kontsulta gela, itxaron gela eta biltegia.

Ospitalizazio gelan zainketa berezia behar duten animaliak geratzen dira. Batzuk hiruzpalau egunez; beste batzuk hamar egunerako ere bai, premien arabera.

Analisi asko egin behar izaten dute. Horietako errazetak beraiek egiten dituzte. Gainerakoak kanpora bidaltzen dituzte, laboratorietara.

Zarugalde Klinika ez da

ospitalea bakarrik. Animalientzako janariak ere saltzen dituzte. Laster, baina, maiatzean, txakurrentzako ile apaindegia jarriko dute, alboko gela batean.

"Animaliak gero eta hobeto zaintzen dira", dio Luisek, "Lanean ari naizen hamahiru urte hauetan gauzak izugarri aldatu dira. Hala ere, askori sekulako gastua iruditzen zaie hilean 5.000 pta gastatzea txakur bati jatekoa ematen, lau milioi pta balio duen automobil ederra erosteko eragozpenik ikusten ez duten bitartean".



**LOGOPEDIA  
ZENTRUA  
ARRASATE**

Logopedia eta psikologia tratamendu kliniko eta hezitzaileak haur eta helduentzako.

Erdiko kale, 37 - behea  
Tel.: 943 79 79 46 • ARRASATE



**TOTEM**

- Zapatak
- Tatuajeak
- Arropak
- Body piercinga

☎ 943 79 49 72 / 943 79 44 88  
Zarugalde, 14 • ARRASATE



## Atzerrian proiektuak finantzatzeko sorreran izango da MCC



Elkarte berriaren enbrioia izan daiteke MCC.

Euskal Herriko industrian duen garrantzia kontuan hartuz, Eusko Jaurlaritzaren Industria Saila proiektu bat lantzen ari da Mondragon Kooperatiba Korporazioarekin, hemengo enpresek atzerrian egin beharreko inbertsioak bideratzeko.

Proiektuaren helburua da erraztea Euskal Herriko enpresen sarrera atzerriko merkatuetan. Industria Saileko arduradunek adierazi duten moduan, oraingoz egitasmoaren

zirriborro bat baino ez dute. Dena den, hainbat enpresatako ordezkariekin izan dira, proiektuaren berri emateko: Iberdrola, GSB, Tubacex, Cegasa, Idom, Marcial Ucin, ITP eta Tubos Reunidos. Bilera horietan sortu nahi den enpresaren nondik norako orokorrak azaldu dira, gerora parte hartze zuzena izan nahi badute, jakinaren gainean egon daitezkeen aipatutako enpresak.

Ikusiz gero proiektua bideragarria dela, SPRI sar-

tuko litzateke enpresa berrian, diru publikoa ziurtatzeko. Gainerako kapitala enpresa pribatuek jarriko lukete.

Sortuko den elkartearen ardura bat izango litzateke merkataritza egiturak sortzea nazioartean, gure enpresek erraztasunak izan ditzaten kanpora doazenean merkatu berri bila.

Horrekin batera, proiektuak finantzatzeko ere balioko luke egitura berri honek.

## Errenta adierazpena

Orain arte dedukzio batzuk egiten ziren. Zeintzuk ezingo dira egin datorren urtetik aurrera?

- Gaixotasunak eragindako gastuak.
- Bizitza edo istripu aseguruak.
- Erretiro aseguruak (pentsio planak edo EPSV direlakoak izan ezik).
- Seme-alaben unibertsitate ikasketak.
- Sei urte baino gazteagoak diren seme-alaben zaintza.
- 65 urtetik gorako zerga pagatzailea.
- Pentsiodunak.



ZENBAKI AHOULKARITZA

# ERRENTA ADIERAZPENA 98

**Informatu. Aukerak aztertu.**


**Dena profesionalen esku.**

**Denboraz eta paper barik.**



**Zenbaki**

Basabe Industrialdea, C Pab. • ARETXABALETA • Tel.: 943 - 71 21 12 • Faxa: 943 - 71 22 68



*Aldez aurretik deitu !*

**TELEMATIKA:**

aitortzen arrunta kobratzeko modurik azkarrena.



# Arrasate herriaren a

Hogeita hamabost urte pasatu dira lau elkarte batu eta lanean hasi zirela. Geroztik, makina bat gauza eratu dira SUDC-en eraginez: jaiak, elkarteak, ikuskizunak... Lan hori gogoraztea eta, bide batez, nolabaiteko eskerrak ematea da erreportaje honen asmoa. Horretarako, elkarteko zenbait sortzaillerekin, urte luzeetan aritu diren beste batzuekin eta oraingo belaunaldikoekin berbetan izan gara. Bejondeizuela lagunok!

**1** 963. urtean jaio zen SUDC, San Isidro, Udalpe, Danok Bat eta Casino elkarte gastronomikoek sortuta. Asmo garbia zuen: indarrak batu, kulturaren aldeko lana egiteko. Hori guztia herrian zegoen kultura kezak bultzatuta. Gaur eguna arte.

Pablo Garai, Udalpe elkarteko kidea izan zen sortzailea eta Jose Egidazu *Casino* lehenengo lehendakaria. Eratu zuten lehen ekitaldia omenaldi bat izan zen, erretiratuei egindako omenaldia. Udalpe elkarte hasi zen lan hori egiten, baina laster SUDCek hartu zuen txanda.

Pablo Garaik kontatu zigun orduko kontu bat baino gehiago: "orduan oilaskoa izaten zen jaietako plater berezia. Bakoitzari txorizo bana arrautza birekin eta oilasko erdi ematen genion. Eta gero kafea, kopa eta purua.

"Gainera, ez zen oraingo moduan musikarik egoten. Beraz, Emisora Parrokial de Mondragón irratia ipintzen genuen, giroa alaitzeko. Bazkaltzera joaten zen jendea ere bertsoak botatzen edo txistak kontatzen ibiltzen zen, egundoko giroa sortuz. Hiru


urtean Udalpen egin genuen bazkaria, baina han ez zen jende guztia kabitzen eta handik Urizarrera joan behar izan ginen, gero udaletxera eta azkenean Fagorren bukatu genuen".

Lehen etxearekin ere nahikotxo komeria izan zuten Pablo Garaik eta bere lagunak. Francoren garaia zen eta elkarte gastronomikoak legez kanpo zeuden.

Ondorioz, beharrezkoa zuten toki bat erostea, legearen barruan sartzeko. "150.000 pezeta eskatzen ziguten Udalperentzako etxebizitza bategatik eta huraxe erosi beharra zegoela erabaki genuen. 60 bazkide berri sartu ziren orduan elkartera eta bakoitzari 3.000 pezeta eskatu genizkion. Horrela erosi genuen lehenengo etxea".

Hasierako urte haietan Seat 600 autoaren zozketarekin hasi ziren. Izan ere, danborrada eta bestelako ekitaldiak antolatzeko dirua nonbaitetik atera behar eta modu egokia horixe zela pentsatu zuten.

Urteak aurrera joan ahala, herriko elkarteak batzen joan zitzaizkion SUDCi. Orain, herrian dauden 24 elkarteak dira SUDCeko kide. Guztira, 2.300 bazkide.



SUDCeko aitzindariak, urteetan zehar ibilitakoak eta orain lanean dabiltzanak izan direnak

## SUDC-ETIK SORTUTA

Herrian oso ezagunak diren elkarte asko SUDCen baitatik sortu dira. "Herriak zerbaiten falta zuela somatu genuen, gauza berriak behar zituela eta horrexegatik hasi ginen lanean". Honelaxe sortu zen Goi-kobalu abesbatza, adibidez. 1989ko udaberrian jaio zen, hain zuzen ere, Luis Ignacio Ruiz de Alegriaren zuzendaritzapean. Laurogei pertsonarekin ekin zion ibilbideari eta ordutik hona, 160 pertsona inguru igaro dira abesbatzatik.


Trikitixa Eskola ere SUDC-en lanaren emaitza da. Orain hain ezaguna den Kepa Junkeraren zuzendaritzapean sortu zen eskola hau, orain hamar urte.

## LAN ISILA

Noski, hau guztia egiteko lana egin beharra dago eta ez gutxi, gainera. Borondatez egiten dute lan partaideek. "Herriarekiko sentimen berezia dugulako egiten dugu lan. Uste dugu jaiak eta horrelakoak herritarrek antolatu behar dituztela eta ez udalak. Izan ere, udalak antolatu antolatzen ditu, baina gero ez du parte-

**"Herriarekiko sentimen berezia dugulako egiten dugu lan"**

# le lan isilean



urekin hizketan.



## URTEROKO EKITALDIAK

Herrian urtero-urtero egiten diren ekitaldi asko eta askoren antolaketaren atzean SUDC dago. 1998. urtean adibidez, hauetxek egin zituzten:

- ☆ Haratuzteak: "Sardinaren erretzea"
- ☆ Elkarte arteko umeen XIV doke txapelketa.
- ☆ Elkarte arteko XVIII doke txapelketa.
- ☆ Elkarte arteko XX mus txapelketa.
- ☆ Omenaldia erretiratuei.
- ☆ Atzeratuen XIV Eguna.
- ☆ Umeen Danborrada.
- ☆ Haurren Eguna.
- ☆ Nagusien Danborrada.
- ☆ Bakailao txapelketa.
- ☆ "Arrasate Herria" nazioarteko V akordeoi txapelketa.
- ☆ Era askotako ekintzatan laguntzaile.

rik hartzen. Antolatzeaz gain, oso garrantzitsua da ekintzetan parte hartzea, jendea askoz ere gehiago animatzen baita".

Baina, SUDCek egiten duen lana ez da soilik gero kalean ikusten duguna. "Atzetik lan handia egiten dugu, izugarria. Jendea horretaz konturatzea nahiko genuke: atzetik dagoen lan izugarriaz".

SUDCen antzekorik ez dago Euskal Herrian "Villabonan akaso, baina ez ditu egiten guk bezainbeste ekintza".

## GERORA BEGIRA

Hilabete batzuetan kili-kolo ibili ostean, SUDC elkarte etorkizunera begira jarri da berriro ere, zuzendaritza

berriaren gidaritzapean.

Zuzendaritza berria ondo-rengoek osatzen dute:

- Lehendakaria: Andoni Arzelai
- Lehendakariordea: Jesus Mari Egidazu.
- Idazkaria: Roberto Beltran.
- Diruzaina: Juanjo Madi-nabeitia.
- Kideak: Anton Zumalde, Jesus Mari Arze, Iñaki Arana eta Rafael de la Cruz.

"Momentuz dagoenarekin segitu nahi dugu, baina danborradan, adibidez, dagoeneko beste bi talde berri ditugu, bata, musean aritzen diren emakumeek sortutakoa eta bestea ezkonduko bikoteen artean eraturakoa. Horretaz gain, beste 32 pertsona daude oraindik danborradan sartu nahi dutenak.

Bestalde, urtero-urtero azterketa berezi bat egiten dugu ordua arte egindakoa aztertzeko eta falta dena zehazteko. Horren arabera egiten dugu gero lan".



Hauetxek dira datozen X urteetan zuzendaritza osatuko dutenak.



1980. urteko mus txapelketa Udalde elkarteak irabazi zuen.

Dena den, SUDCek egiten duen lanak ez du balio jendeak parte hartzen ez badu. "Jendeak gero eta gutxiago hartzen du parte ekintzetan. Leku guztietan gertatzen da berdin. Hori dela eta, etengabe gabil-tza gauza berriak pentsatzen".

### XXXV URTEURRENA

Hasieran esan bezala, SUDCek 35 urte bete ditu aurten. Hori dela eta, ekitaldi bereziak egin-go dira urtemuga hau ospatzeko. Oraindik behin behin-nekoak badira ere, honakoak e-gitea pentsatu dute:

- Ezinduentzako saltsa eta merenge ikastaroa.
- Danborradaren erreper-toria berriztu.
- *El Caserio* zarzuela.
- Jaialdia Amaian Arrasa-teko musika taldeekin.
- Fanfarre erakuskeria.



1982. urtean, doke txapelketa Monterron parkearen aurrean.

- SUDCek izan dituen lehendakariekin elkarrizketa ATBn.
- Kirola eta gastronomia-ri buruzko hitzaldi saioa. ■

-----  
**Ubane Madera**



1982. urtean Haratuzteetako erregina aukeratzeari utzi zitzaion.

### SUDC-EN HISTORIA

**1963** SUDC sortu zen. Jose Egidazu *Casino* da lehenda-karia. Hiru ekintza egiten hasten da:

- ☆ Omenaldia erretiratuei.
- ☆ Seat 600 autoaren zozketa.
- ☆ Danborrada.

**1971** Aiesak hartu zuen lehendakaritza.

**1973** Luis Martinez lehendakari.

**1977** Jose Antonio Armendia lehendakari.

**1982** Urte garrantzitsua izan zen haxe SUDCentzat. Ordua arte zegoen taldea goitik behera berriztu eta Jesus Mari Arze guztien gidari zela, hurrengo bi urte-etan hogeik ekintza berri baino gehiago egiten hasi ziren. Orduan sortu ziren:

- ☆ Umeentzako tortilla lehiaketa.
- ☆ Buztinezko irudi lehiaketa.
- ☆ Ezinduen eguna.
- ☆ San Juanetako entzierroa.
- ☆ Haratuzteak (ikastolakoekin kalejira, sokamuturra, sardinaren entierua...).
- ☆ Fanfarreen erakuskaria.
- ☆ Danborradak bikoiztu egin zuen jende kopurua.

Urte batzuen buruan ekintza batzuk desagertu egin ziren, jendearen parte hartze eskasarengatik.

**1987** Gorroño lehendakari.

**1989** Anton Zumalde lehendakari. Urte honetakoak dira:


- ☆ Goikobalu.
- ☆ Trikitixa Eskola.
- ☆ Play-Back lehiaketa.

**1990** Jose Ramon Arkauz lehendakari. Era askotako ekintzetan parte hartzen hasi zen SUDC: HIESaren aurka, Ijitoen Egunean, AED elkartearekin eta baita Nazio-arteko Akordeoi lehiaketan. Orduetik hona mota honetako hamaika ekintzatan dabil laguntzen.

# ETXE MOBEL

MUEBLES


ALTZARIAK



**BI SOLAIRUKO ERAKUSKETA • LOGELAK-SALOIAK**

Araba Etorbidea, 5 (ESKATU Pabilioia, San Andres auzoa) • Tel. / Faxe: 943 79 41 82  
ARRASATE

# GRUPO **RKUZ**

FAGOR 

**ALTZARIAK**



Araba Etorb. 20 • Tel. / Faxe: 943 79 23 51  
ARETXABALETA

**SUKALDE INTEGRALA**



Mitarte, 3 • Tel. / Faxe: 943 77 04 55  
ARETXABALETA

## JOSE JABIER BARKERO (FUTBOL JOKALARIA)

# “Euskadirekin jokatzeko”

Jose Jabier Barkerok 20 urte ditu, eta dagoeneko hamalau daramatza futbolean jokatzeko. Horietatik zortzi Realean egin ditu. Nigerian jokatu den 20 urtez azpiko munduko txapelketatik itzuli berria da, Espainiako taldearekin txapelketa gelditu eta gero.

— Noiz hasi zinen futbolean jokatzeko?

— 6 urte nituela, anaiarekin hasi nintzen futbitoko talde batean. Bera urtebete nagusiagoa da, eta nik urtebete nagusiagoa zen jendearekin jokatzeko nuen. Horrek eragin handia izan zuen, asko ikasi bainuen. Bederatzi urterekin UDA taldean hasi nintzen, eta han hiru bat urte egin ondoren, Realean sartu nintzen. Beraz, aurten Realearekin egin dudana zortzigarren urtea da.

— Zer moduzko esperientzia izan duzu orain arte Realearekin?

— Realean sartzeak izugarriko poza eman zidan, baina aldi berean gauza asko bazterrerara utzi behar izaten dira. Gustuko gauza askori uko egin beharra dago. Bestalde, entrenamenduez gain, ikasketak ere aurrera atera behar dira, eta entrenamenduek denbora asko kentzen dute. Orain, ordea, futboleko erabat sartuta egonda, futboleko pentsatu beharra dugu.

— Nigerian Munduko Kopa jokatu ostean, txapelketa gelditu zarete. Zer moduz ibili zarete?

— Izugarri ondo. Oso esperientzia aberasgarria izan da. Nigerian pobrezia handia ikusi dut. Jendeak ez du ezer egiteko; jende askok ez du lanik egiten, eta entrenamenduetan ere futbolaria beteta egoten ziren. Jatorduak

ere nola edo hala egiten zituzten; jantzi ere, halamoduz... Egunez egunekoari begira bizi dira, ez baitakite hurrengo egunean ezer izango duten. Janaria merkatuetan saltzen zen, eta zomorroz beteta egoten zen. Sinestezina zirudien hori jan zitekeela. Norbere begiekin ikusi arte, gezurra dirudi horrelakorik egon daitkeela.

— Hautatzailearen deia jaso zenuenean, zer sentitu zenuen?

— Neurri batean espero nuen deituko zidala, 18 urtez azpiko taldearekin ere ibili nintzen eta. Europako txapelketa ere bi aldiz ibilia naiz. Beraz, alde horretatik deitu ez balit, etsipen handia hartuko nukeen.

— Hango futbolaria zelaiek badute hemengoekin antzekotasunik?

— Futbolaria oso ongi zeuden, nahiz eta baloia mugitzea piska bat kosta. 15.000 pertsona inguru sartzen ziren, eta finala jokatu genuenean, 40.000 inguru.

— Hango haurrek badute futbolarako zaletasunik?

— Haur askok jokatzeko dute futboleko, eta edozein lekutan eta oinutsik gainera. Baloiak

“Munduko txapelketa irabazteak asko lagunduko digula uste dut. Harrobiko jokariarekin ere eragina izango du”



# “a gustatuko litzaidake”

ez dakit nondik ateratzen zituzten, baina bazituzten.

— **Atzerriko hedabideetan ere asko entzun da zure ize-na. Horrek bideak zabalduko dizkizu?**

— Baietz uste dut. Munduko txapeliduna izatea ez da eguneroko gauza, eta bai nik eta baita beste taldekideek ere zorte handia izan dugu munduko txapelketa irabaztean; asko lagunduko digula uste dut. Harrobiko jokariengan ere eragina izango duela uste dut, jendeak Brasil edo Argentinarekin pareka baitezake

estatuko futbola, eta hemen-go futbolariak hobeto ikusita egongo dira.

— **Nola aurreikusten duzu datorren urtea?**

— Lehenengo Sanserekin *play-offa* jokatuko dugu, eta gero ikusi egin behar.

— **5.000 milioi pta.ko klausula duzu. Hori ez da aldi berean beste talde batzuetara joateko oztopo?**

— Oztopoa bada, baina nik sinatu nuenean Real beste-rik ez nuen buruan. Hitzarmen amateurra da. Klausula han-

dia da, baina gaur egun futbolaren merkatuan dirua asko eta erraz mugitzen da. Orain bospasei urte ez zen horrela-ko dirutzarik mugitzen.

— **Espainiako taldean sei euskaldun izan zarete, entrenatzailea barne.**

— Bai. Urte askoan Espainiako selekzioaren oinarria euskalduna izan da. Nire ustez, beti egon behar du euskaldunen batek selekzioan, gure izaera berezia baita.

— **Espainiako selekzioa ala euskalduna nahiago?**

— Gustatuko litzaidake euskal selekzioarekin jokatzea, baina Espainiako selekzioarekin jokatutako partidak gaur egun ezin daitezke euskaldunarekin jokatu. Maila ona izango luke euskal taldeak, eta pena da Espainiakoak jokatzen duen txapelketetan oraindik ezin jokatu izatea.

— **Nola definituko zenuke zure jokatze modua?**

— Bizkorra naiz, eta norbaitekin aurrez aurre nagoe-  
nean ere defenditzen naiz. Horretaz gain, golak sartzen ere badakit. ■



**ZUZEN-ZUZENEAN  
FABRIKATIK  
ZURE ETXERA**

**Super  
Armeko**

Sukalderako Altzarien Fabrika

Kataide industrialdea • 6. pabilioia • ARRASATE • Tel.: 943 79 91 75

# Zaharren eta gazteen gustuko



Zaldibarreko txapelketako jarraitzaileek adin mugarik ez dutela argi dago. Begira bestela, erretiratuak, gazteak, aitak umetxoarekin... A, egunkaria irakurtzeko parada ere izan daiteke!

## Laburrak

### ■ DENAK JOKOAN

Heldu da dagoeneko bigarren aldiko azken jardunaldia. Hiru taldetan behintzat gauzak gori-gori daude. Taldez talde ikusita, A taldean Txantxiku Kirolak eta Branka Taberna sailkatu dira hirugarren aldirako. Beste bi postuetarako lau talde daude lehian: Dribling, Jotakabau, Komando Alpargat eta Irati STS.

Lau hauetatik aukera gehien Komando Alpargat tal-

deak ditu. Izan ere Dribling eta Jotabauk elkarren aurka jokatzen dute. Irati STS taldeak bestalde, Txantxiku Kirolak aurka jokatu behar du.

B taldean Aldibi eta Potroak sailkatu dira eta You Know taldea erdi sailkatua dago. Gara je Oscar eta KKJauri dira aukerak dituzten beste bi taldeak. Hauek elkarren aurka jokatu behar dute, beraz, ez da txantxetako norgehiagoka izango.

Hirugarren taldean AC Sur-

kos eta Lontxo sailkatu dira eta txartel bila ari dira Pepelus (erdi sailkatuta), AT Celaya, Diego Antonio eta Xhass Ugarte. Lehenengo biek euren esku dute txartela. Irabaziz gero, zuzenean pasako dira eta. Beste biek, ordea, nahiz eta irabazi, Pepelus eta AT Celayak egiten dutenaren zain egon beharko dira.

Azkenik, E taldean, ia dena argituta dago. Hirugarren aldian egongo dira Orlando

Piratas, EPEH eta Naranja Mecanica taldeak. Saukelu Scream da dudan dagoen taldea. Izan ere, talde honi aste honetan kaleratuta dagoen Ke Oxtiasen aurka aritzea tokatzen zaio. Beraz, norgehiagoka irabazita dauka eta gainera Totem taldearekiko golaberagea alde dauka. Baina itxaron egin beharko du Sokokoaren emaitza.

Ikustekoa izango da beraz, bigarren aldiko azken txanpa.



Araba Etorbidea, 3 Eskatu Pabilioia  
Tel.: 943 79 05 86 ARRASATE

Zure begiek  
laster  
ikusiko dute

# ZAFIRA



**OPEL**



## Sailkapenak

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aide	Aurk.	Guzt.
Txantxiku Kirolak	6	5	1	0	45	14	<b>11</b>
Branka Taberna	6	3	3	0	29	21	<b>9</b>
Komando Alpargat	6	2	2	2	26	30	<b>6</b>
Dribling	6	3	0	3	22	24	<b>6</b>
Irati STS	6	2	2	2	24	21	<b>6</b>
Jotakabau	6	1	4	1	15	16	<b>6</b>
Aita Menni 2010	6	0	2	4	17	37	<b>2</b>
Leya	6	1	0	5	20	35	<b>2</b>

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aide	Aurk.	Guzt.
Aldibi	6	5	1	0	38	18	<b>11</b>
Potroak	6	4	2	0	40	22	<b>10</b>
You Know	6	4	0	2	32	22	<b>8</b>
Garaje Oskar	6	3	0	3	21	27	<b>6</b>
KKJauri	6	3	0	3	29	36	<b>6</b>
Koka Juniors	6	2	0	4	17	32	<b>4</b>
DKB	6	0	2	4	23	34	<b>2</b>
Fragel Gol	6	0	1	5	10	19	<b>1</b>

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aide	Aurk.	Guzt.
AC Surkos	6	5	1	0	54	20	<b>11</b>
Lontxo Taberna	6	4	1	1	41	23	<b>9</b>
Pepelus	6	3	1	2	23	24	<b>7</b>
AT Celaya	6	3	0	3	31	34	<b>6</b>
Diego Antonio	6	2	1	3	27	40	<b>5</b>
Xhasss Ugarte	6	2	0	4	27	35	<b>4</b>
Kamasutra	6	2	0	4	24	34	<b>4</b>
Aurrera Bolie	6	0	2	4	20	35	<b>2</b>

E taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aide	Aurk.	Guzt.
Orlando Piratas	6	5	0	1	36	16	<b>10</b>
EPEH	6	5	0	1	32	20	<b>10</b>
Naranja Mecanica	6	5	0	1	40	20	<b>10</b>
Saukelu Scream	6	2	1	3	12	22	<b>5</b>
Totem	6	2	1	3	18	27	<b>5</b>
Sokoakoak	6	2	1	3	17	19	<b>5</b>
Insert Coin	6	1	1	4	11	30	<b>3</b>
Ke Oxtias	6	0	0	6	4	16	<b>0</b>



## Emaitzak

### A taldea

Txantxiku 10 - Aita Menni 1  
Jotakabau 1 - Branka 1  
Irati STS 6 - Leya 3  
Kom. Alpargat 7 - Dribling 6

### B taldea

You Know 7 - DKB 6  
Garaje Oscar 2 - Aldibi 5  
Potroak 11 - Koka Juniors 2  
Fraguel Gol 0 - KKJauri 1

### D taldea

AC Surkos 14 - Diego Antonio 0  
Aurrera Bolie 2 - Kamasutra 7  
Lontxo Tab. 4 - Pepelus 5  
AT Celaya 9 - Xhasss Ugarte 3

### E taldea

Orlando Piratas 10 - Insert 1  
Totem 1 - Saukelu Scream 2  
Naranja 3 - Sokoakoak 1  
Ke Oxtias 0 - EPEH 1

**ARRASATE KIROLAK**

Kontzezino Kalea, 8 - Tel. 943 794 612 - ARRASATE-MONDRAGON

## IV Nesken Futbito Txapelketa

IV Nesken Futbito Txapelketa bigarren jardunaldia jokatzen joan den asteburuan. Sailkapen orokorrean Izen

Bakuak eta Porrusalda Forever taldeek segitzen dute aurrean. Txanpi 1 eta 2 taldeek azken bi tokiak laga dituzte.

### Emaitzak

#### 2. jardunaldia

#### San Viatorren

Ieup!! 1 - Porrusalda Forever 3  
Skarlets 4 - Pil-pil Forever 5  
Izen Bakuak 9 - Gora Gu 1

#### Ferixalekuan

Txanpi 1, 15 - Nuze 1  
Txanpi 2, 28 - @z.kom 0

#### Hurrengo partidak

#### Maiatzak 8, larunbata

#### San Viator Txikin:

15:00 Txanpi 2 - Nuze  
16:00 Txanpi 1 - Ieup!!  
17:00 Izen Bakuak - Skarlets  
18:00 @z.kom - Gora Gu

#### Sailkapen orokorra

1.- Izen Bakuak	4
2.- Porrusalda Forever	4
3.- Txanpi 2	2
4.- Txanpi 1	2
5.- Pilpil Efektua	2
6.- Ieup!!	2
7.- Skarlets	1
8.- Nuze	1
9.- Gora Gu	0
10.- @z.kom	0

## Hurrengo partidak

### 2. aldia

#### 7. jardunaldia

#### Maiatzak 8, larunbata Zaldibar

08:50 Dribling - Jotakabau  
10:00 DKB - Koka Juniors  
11:00 Txantxiku Kirolak - Irati STS  
12:00 Komando Alpargat - Branka Tab.  
13:00 Orlando Piratas - Naranja Mecanica  
14:00 Aita Menni 2010 - Leya  
15:00 KKJauri - Garaje Oscar  
16:00 AC Surkos - Lontxo Taberna  
17:00 You Know - Potroak  
18:00 Xhasss Ugarte - Aurrera Bolie

#### Maiatzak 9, igandea Zaldibar

09:50 Diego Antonio - Pepelus  
11:00 AT Celaya - Kamasutra  
12:00 EPEH - Totem  
13:00 Insert Coin - Sokoakoak

**Atsedena:** B taldea: Aldibi, E taldea: Saukelu

Born Jay taldeko txirrindularia

## JON DEL RIO

**“Ez nuen espero garaipena horren azkar lortzea”**

— **Joan den asteburuan berriz ere laugarren gelditu zinen. Denboraldia ondo hasi duzu, ezta?**

— Bai, ondo hasi dut. Askoz lehenago hasi nintzen denboraldia prestatzen eta horrek ere zer esan handia izan du emaitzetan.

— **Granadako itzulian etapa irabazi zenuen. Espero zenuen?**

— Ez nuen espero garaipena horren azkar lortzea. Aurreko egunean laugarren egin nuen eta horrek berotu egin gintuen. Ondo atera zen, bai.

— **Zein da zure hurrengo helburua?**

— Bidasoako Itzulian lan ona egitea. Ez naiz eskalazalea, esprinterra naiz; hori dela eta, etaparen bat irabazten saiatuko naiz.

— **Lehendakari txapelketan ere bosgarren zaude. Gustura?**

— Iaz hirugarren gelditu nintzen eta aurten marka hori hobetzea espero dut.

— **Zenbatgarren urtea afizionatu mailan?**

— Hirugarren denboraldia da aurtengoa. Iaz lasterketa bat irabazi nuen denboraldi amaieran. Aurten askoz ere hobeto nabil.

— **Nola ikusten duzu zeure taldea aurten?**

— Iaz baino sendoago, nahiz eta txirrindularia pare bat mina hartuta dabiltzan. Batek istripua izan zuen denboraldi hasieran eta besteak hanka du minduta.


— **Asteburuari begira, nora joango zarete?**

— Soraluzera Lehendakari Sariko lasterketara joango naiz.

Gero egun bateko atsedena hartuko dut, asteartean Bidasoako Itzulira joango gara eta.



## ESKUBALOIA Urolakoak hobeto



Gazte mailako Arrasateko Eskubaloi Taldeak galdu egin zuen asteburuan Urolako taldearen aurka. Defentsa kaskarra erakutsi zuten Faustino Gorostizaren taldekoek Iturripen. Horrez gain, lehen 30 minutuetan epaileak hartutako erabakiengatik hasarre agertu ziren ikusleak, bai eta entrenatzailea ere. Bigarren zatian Arrasatek gol ugari lortu zituen eta Nestor Calleja izan zen goleatzaile nagusia. Azkenean, ordea, Arrasate 26 eta Urola 33 amaitu zen norgehiagoka. Asteburu honetan Elgoibaren aurka arituko dira gazte mailako eskubaloi taldekoak. Baina ez dira bakarrak izango. Izan ere, haur mailakoak ere Elgoibar izango dute eta, aurkari asteburu honetan.

## SASKIBALOIA Maila berean geldituko dira



Senior mailako Kenci-Arrasate saskibaloi taldeak denboraldiko azken partida jokatu zuen larunbatean Leioako Sakoneta kiroldegian.


Ezin sailkatu igoera aldi-ko lehenengo lau taldeen artean Zesar eta Danelen mutilak. Beraz, Kenci-Arrasatekoak ez dira mailaz igoko. Larunbatean galdu egin zuten, nahiz eta tarte txikiko aldeia izan ia partida osoan. Bigarren zatiaren amaiera aldera, mondragoetarrak alde handitzen saiatu ziren falta pertsonalekin. Orduan leioarren tarte handitu egin zen. Partida 87-81 amaitu zen, leioarren alde.

Junior eta haur mailako tal-

deei beste hiru partida gelditzen zaizkie. Haur mailakoek 67 eta 55 garaitu zituzten larunbatean Oñatiko Hirurok taldekoak. Juniorrek 82 eta 72 irabazi zieten Askatuak taldekoek. Asteburuan haur mailakoak Zarautzera abiatuko dira eta juniorrek, berriz, Azpeitian izango dute partida.

Bestalde, 1984-86 urteetan jaiotako eskola mailako bi talde Gasteizen jokaturako txapelketa batean aritu ziren asteburuan. Gasteizko Marianista ikastetxeak antolatu zuen, Txus Brizuela, Arrasate Saskibaloi taldeko entrenatzaile ohiaren laguntzaz. Hantxe aritu ziren Donostiako Askatuak, Durangoko Tabirako, Gasteizko taldeak eta Madrilgo Estudiantes taldeak.

## XAKEA Maila bikaina



Igandean Gasteizen San Prudentzioko irekia jokatu zuten Josu Tornay, Txema Hernando eta Xabier Aspe, San Andres Xake Taldeko kideek. Partida erdi azkarretako txapelketa honetan 73 xakelari aritu ziren. Tartean hiru maixu handi, nazioarteko bi maixu, fide maixu bat eta nazioarteko sailkapenean dauden hamasei xakelari. Hernando, 13. gelditu zen bost punturekin. Nahiko txapelketa erregularra burutu zuen eta irteera zerrendan 22. zela kontuan izanik, lan ona egin zuen. Tornay, irteera zerrendan 21. zen eta 24. amaitu zuen 4 punturekin. Axpe 43. zen eta bere lekuan gelditu zen gutxi gorabehera, 39. amaitu zuen eta. Bi aste barru, 24 orduko partida azkarretako Euskal Herriko txapelketa jokatu da Durangon. Arrasateko Txema Hernando arituko da. Guztira bost minutuko 99 partida jokatuko beharko ditu.

# Arrasate Kirolak Atletiko Taldea

Arrasate Kirolak Atletiko Taldea lehen mailara igo da, Euskal Herriko bigarren mailako taldeen arteko txapelketan bigarren sailkatu ondoren. Joan den asteburuan Duran gon aritu ziren Atletikoko gazte eta beteranoak eta sekulako markak lortu zituzten:

## 100 m.

1. Lorenzo Avila

## Altuera jauzia

1. Jokin Diaz de Lezama

## Pertika jauzia

1. Jonathan Perez

## Mailu jaurtiketa

1. Aitor Urizar

## 4x100 m.

1. Avila-Apraiz-Diosdado-Apraiz

## 200 m

2. Unai Sarabia

## 800 m.

2. Felix Sanchez

## 400 m. hesi

2. Remi Diosdado

## Disko jaurtiketa

2. Mikel Uribesalgo

## Xabalina jaurtiketa

2. Haritz Barrutiabengoa

## 4x400 m.

3. Elorza-Nogales-Sanchez-Davila

## 110m. hesi

3. Jon Igartua

## 400 m.

4. Martin Davila

## 1.500 m.

4. Fernando Nogales



Igandean izango da Ojala-Zelaiko herri krosa.

## 3.000 m.

4. Javier Mentxaka

## 3.000 m oztopo lasterketa

4. Oliver Fernandez

## Hiruko jauzian

4. Unai Elorza

Arrasate Kirolak Atletiko Taldeak 126 puntu eskuratu zituen, Barakaldoko taldeak baino 9 gutxiago. Arrasateko 20 kirolari abiatu ziren Duran gora, bai eta bergarar bat eta bi oñatiar.

Betalde eta Donibane Lohitzunen jokatu zen probintzi arteko txapelketan,

Alazne Ruiz de Munain bosgarren izan zen 1.500 m.ko lasterketan. Gipuzkoako nesken zein mutilen taldeak lehen garaipena eskuratu zuten sailkapen orokorrean.

Datorren asteburuan infantil mailako Gipuzkoako txapelketa jokatu da Anoetan. Parte hartze libreko probak ere hantxe jokatu dira eta Aretxabaletan, maiatzaren 9an, Ojala-Zelai herri krosaren XXI edizioa egingo da.

## Gazteenak irabazi Bergaran

Bergarako txapelketan izan ziren igandean Saioa Karate eskolako karatekek ez zuten lan txarra egin. Kata kategorian aritu ziren. Laida Ramos bigarren izan zen gerriko berdetik gorako mailan eta Tania Diaz lehenengo sailkatu zen gerriko berdez azpiko mailan. Mutilei dagokienez, Jon Silvester bigarren izan zen alebin mailako gerriko berdez azpikoan artean eta Jon Rodriguez lehenengoa izan zen infantiletan, gerriko berdez azpikoetan.

Igandekoa, denboraldiko azken aurreko proba izan zen gazteenentzat. Azkena maiatzaren amaieran izango da, Donostian. Hantxe udaberriko saria jokatu dute.

## Motorzaleen X bilkura

Arrasateko Motorzale Elkar-teak Motorzaleen X bilkura antolatu du maiatzaren 16rako. Izen ematea 2.500 pta kostako da. Bi pertsonarentzako bidaia zozkatuko da Ingalaterraraino. Baita bidaiantzako janari-poltsa. Magia saioa, gaueko ibilbidea, jaialdia eta bestelakoak egingo dira. Berri gehiago, Arrasateko Motorzale elkartearen.



## Amaitu da denboraldia

Nesken futbol taldeak amaitu du dagoeneko 98-99ko denboraldia. Esti Loitiren neskek ez dute denboraldi ona egin. Sei puntu lortu dituzte. Sei partida berdindu dituzte eta. Hori dela eta, datorren denboraldian territorial mailako ligan arituko dira.

Esti Loitik berak baieztatu digunez, entrenatzaile lanetan segituko du, baina "Mondrako zuzendaritzari esan diot talde jende berriarekin osatuko dudala. Bost sei bat lagun gelditu egingo dira, baina 14-16 urte arteko gazteak nahi ditut. Ilusioa



Territorial mailan arituko da nesken taldea.

duen jendea behar dugu, aurreten gertatu dena berriz ez errepikatzeko".

Talde berria uztail aldean osatua egon behar denez,

lehenbailen hasi beharko dira futbolari gazteen bila.

Beraz, badakizue, futbolearen aritzea gustuko baduzue, hauxe duzue aukera!

# Gipuzkoako herri arteko txapelketa

Berriz ere 1 eta 2 irabazi zuten Arrasateko pilotariek Gipuzkoako Herri Arteko Txapelketan. Eibarko bikoteen aurka itzuliko norgehiagokak jokatu zituzten joan den ostiralean. Haur mailan 18 eta 5 galdu zuten Iñigo Jimenezek eta Jon Rodriguezek. Gazte mailan 22 eta 3 irabazi zuten Egoitz Uribarrenek eta Beñat Dominguezek. Senior mailan, berriz, 22 eta 6 gailendu zuten Iker Zugastik eta Jon Zuazubiskarrek Debako bikotea. Laz-

kanok eta Belategik berriz, 22 eta 13 irabazi zuten Asier eta Abasoloren aurka, Gatzagako lau t'erdiko txapelketan. Hurrengo partida, maiatzaren 16an jokatuko dute.

Zugasti eta Zuazubiskar, bestalde, Tolosako txapelketako final laurdenetara pasatu dira. Asteburuan dira jokatzeokoak.

Elgetako lau t'erdiko txapelketan Uribarrenek, Jimenezek eta Dominguezek galdu egin zituzten euren norgehia-



gokak. Seniorretan, Zugastik 22 eta 0 irabazi zion Gantiari.

Bestalde, Zubillaga anaiak Oñatiko eskuz binakako txapelketa jokatzen ari dira eta maiatzaren 9an, Elusuko Joseba eta Muguruzaren aurka ari tuko dira, Oñatin.

pelketa jokatzen ari dira eta maiatzaren 9an, Elusuko Joseba eta Muguruzaren aurka ari tuko dira, Oñatin.

## Zorionak Josu Ezkurdiari

Partida bitxia larunbatean Garagartzako errugbi zelaian ikusi zena. Zaharrak gazteen aurka aritu ziren. Jipoia eman zieten gainera, zaharrenek gazteenei. Josu Ezkurdia ezkontzen zela eta, partida bat jokatzea erabaki zuten herriko errugbilariek. Irabazten hasi ziren gazteenak eta 10 eta Oeko aldea lortu zuten lehen zatia amaierarako. Bigarren zatian beterranoak aurreratu ziren markagailuan Bitorrek eta Patxi



Gorosabelek lortutako entseguen alde, eta denak pozik. Zorionak Josu Ezkurdiari gure partetik.

Azkenean 29 eta 10 bete-

ranoen alde, eta denak pozik. Zorionak Josu Ezkurdiari gure partetik.

## Txirrindulari probak

JMA taldeko bigarren urteko haurrak Legorretan arituko dira taldekako erlojuaren aurkako Gipuzkoako txapelketan. Lehen urtekoek. Urnietan dute proba igandean. Arrasate Kirolakeko infantilak taldekako Gipuzkoako erlojuaren kontra jokatuko dute larunbatean, Tolosan. Fagorreko gazteak Lazkaora joango dira larunbatean, XXXII Lazkaomendi proban neurtzera.

**Carmen**  
solariuma

Beltzaran egoteaz amesten duzu?

Ferrerias, 50 behea  
Tel.: 943 79 03 63

**Drogazaleak errehabilitatzeko zerbitzua**

Drogak utzi nahi badituzu  
Senide edo lagun bati lagundu nahi badiozu

Deitu guri!

Tel.: 91 855 03 86

los molinos

KEPA URIBARREN, TAILUGILEA

# “Tailugile ona izateko maisu onak behar dira”

Gernika-Lumoko kultura etxean Kepa Uribarrenen tailu erakusketa dago ikusgai. Maiatzaren 4an zabaldu zuen, eta maiatzaren 19a arte hantxe izango dira bere artelanak. Hamalau urte daramatza tailugintzan arrasatear honek, eta etorkizunean ere langintza berearekin segituko du.

— Noiz hasi zinen tailugintzan?

— 17 urterekin hasi nintzen.

Betidanik gustatu izan zait, eta ikastaro txiki bat eginez hasi nintzen. Mattin Amundarain izan nuen lehenengo maisua. Arotz ikastaroa izan zen hura, eta gero tailu ikastaroa egin nuen. Ondoren Gasteizen zurgintza, diseinu eta marrazki eskolak hartu nituen, Arte eta Lanbide eskolan. Iñaki Ruiz Navarro tailugilearekin egon nintzen ondoren ikasten, Arabako Foru Aldundiak tailugintzan jarduteko beka eman zidan eta.

— Zer ikasi zenuen Iñaki Ruizekin?

— Estilo oso ezberdinak daude tailugintzan, eta horiek guztiak Iñaki Ruizekin ikasi nituen. Altzarietarako ere pieza asko egiten genituen, eta baita oso antzinako estiloak erabiliz ere.


— Zein ezaugarri behar dira tailugile ona izateko?

— Askok aritu behar da, eta teknika ere izugarri landu behar da, lehen mailakoa izateko. Horretarako ezinbestekoa da maisu onak izatea.

— Egurra nondik lortzen duzu?

— Jendeak biltegiatan erosten du jeneralean. Nik intxaurra eta gerizarekin batez ere egiten dut lan

— Zenbat estilo daude?



— Garai bakoitzean estilo bat egon da. Luis XIV, XV, XVI estiloak, berpizkundekoa, Luis Phillipe,...

— Zein prozedura duzu lanerako?

— Lehenengo bozetoak egin behar izaten dira. Beraz, marrazkigintzari dagozkion oinarriak jakitea ere ezinbestekoa da. Pieza egiterakoan, teknika jakin bat hautatu ondoren, teknika horri dagozkion ezaugarriekin jantzi behar da pieza. Horretaz gain, konposizioak ere orekatua izan behar du.

— Erakusketa asko egiten dituzu?

— Erakusketa gutxi egiten ditut. Arrasaten hiru bat izango ditut eginda, Oñatin beste bat, Eibarren...

Ez ditut asko egiten, material asko bildu behar izaten da eta, aretoa betetzeko.

“Askok ez bezala, nik intxaurra eta gerizarekin batez ere egiten dut lan”

## aste gazte

### ■ UDAKO EKINTZAK

• 14-17 urte arteko gazteei zuzenduta, Gipuzkoako Foru Aldundiaren udako kanpaina berria: abenturako kirolak Belagoan, urtekintzak Valentzian eta Almerian, bizikleta ibilaldiak Alborachen eta Segovian, abentura kirolak Murillo de Gallegon, Baztanen eta Linzan, hipika Toledon, antzerki lantegiak Caceresen. Izena emateko epea: maiatzaren 10etik 20ra.

• Kanpaina beraren barruan Ingeles egonaldiak Segurako aterpetxean, uztailean eta abuztuan.

### ■ UDAKO UNIBERTSITATEAK

• Bulegoan aurki dezakezu EHUK eta UEUK antolaturiko ikastaroen berri. EHUKen kasuan izena emateko epea maiatzaren 3an zabaldu da, plazak bete arte. UEUn parte hartzeko, berriz, bi epe daude: Miarritzen egingo diren ikastaroetarako ekainaren 1etik 25era eta Iruñean egingo direnentzat, ekainaren 1etik 30era.

### ■ DIRU LAGUNTZAK

• Kanpo merkataritzarako 28 beka. Epea: maiatzak 15.

### ■ LANA

• Antzuolarako, kultura, euskara, kirola, gazteria eta hezkuntzarako arduraduna eta laguntzailea behar dira. Epea: maiatzak 10.

• Bizkairako psikologoa eta soziologoa behar dira. Epea: maiatzak 10.

• Nafarroako Foru Erkidegoan turismo jardueretarako ofiziala behar da. Epea: maiatzak 12.

Berri gehiagorako:  
GAZTE ZERBITZUA  
☎ 943 77 00 65

## “Dantza eta kultura, denontzako onura”

Arrasateko ikastolaren eguna zapatuan ospatuko da, “Dantza eta kultura, denontzako onura” leloarekin Ferixalekuan, herritar guztiei zuzenduta. San Viator eta San Frantzisko Xabier ikastoletako zuzendarien ustez, ikastolak herria izan du sortzaile, eta nola herriak hala ikastolak hartu dute parte bien asmoa aurrera eramaten; hots, euskara eta euskal kultura indartu eta zabaltzen.

10:30ean hasiko da jaija haurrentzako puzgarri eta jolasekin. Eguerditik aurrera, Euskal Herriko, Andaluziako, Extremadurako eta Galiziako dantzen emanaldia eta herrialde horietako gastronomiaz gozatzeko aukera “Gastronomia feria”n. Dirua lortzeko, DBHko 3. mailako ikasleek txozna jarriko dute. Ordu ber-



Ihaz San Frantzisko Xabier ikastolak ospatutako jaiak.

tsuan Itziar Arregi, Xeli Arregi eta Marga Merkaderri omenaldia egingo diete herri dantzen alde egindako lan esker-ga eskertzeko.

### ANAGRAMA BERRIA

13:00etan Arrasateko Ikastolarako antolatu anagrama diseinu lehiaketako sariak banatuko dira. Ainara eta Maialen

Sagarna ahizpa usurbildarrak dira anagrama berriaren egileak. Diseinuak Arrasateko alde zaharra eta hiribildua hartu du oinarri. Herria eta ikastola elkartzuz, euskal kultura eta hizkuntza munduratzeko xedea islatu nahi izan dute. Larunbatean, Maiatza Kirolean Murgildurik programa jarriko du abian ikastolak.

## “Ez esan inori”

Sexualitateari buruzko zine zikloaren barne, bigarren filma ikusteko aukera izango da datorren ostegunean (maiatzaren 13an).

*Ez esan inori* izenburua du filmak, eta Francisco J. Lombardiren zuzendaritzapean Lucia Jimenez, Santiago Maguill eta Christian Meier aktoreak dira protagonista nagusi.

Identitate sexuala bilatzean gazte batek bizi dituen kezka eta gazi-gezak kontatzen ditu istorio honek.

Gaztearen herrialdeko morala oso atzerakoia da, eta zer pentsatu emango dio horrek filmeko protagonista nagusiarri.

Intolerantziari buruzko istorio unibertsala, beraz, Jaime Bayly idazle perutar polemikoaren nobelan oinarritua.

## “Gazteak eta 2000. urtea” argazki lehiaketa

Arrasateko Udalak “Gazteak eta 2000. urtea” argazki lehiaketa antolatu du, ASA argazki taldearekin batera. Parte hartzaileei dagokienez, bi kategoria bereiztu ditu: Bate-tik, 14 urtetik 18 urtera bitarteko gazteena dago. Multzo honetan parte hartzaile guztiek Deba Garaikoak izan beharko dute. Bestetik, 19 urtetik 35 urtera bitartekoenak.

Argazkiak zuri-beltzean edo koloretan aurkeztu ahal izango dira. Sarietarako dagokienez, lehenengo kategorian reflex argazki kamera irabaziko du lehen saritua, eta argazki makina konpaktoa izango da bigarren saria. Bigarren kategorian zuri-beltzeko eta koloretako argazkien sariak bereiztuta banatuko dira. Modalitate bakoitzean, bildumarik onenak 75.000

pta jasoko ditu, eta argazkirik onenak 50.000 pta.

Emakumezkoen ikuspuntua, mundua edo errealtatea ongien islatzen duen argazkiak ere sari berezia izango du, 50.000 pta.koa.


Argazkien formatoa librea izango da lehen kategorian, baina 19tik 35 urtera bitartekoen multzoan hainbat baldintza jarri dituzte. Argazkien tamaina gutxienez 18x24

cm.koa izango da, eta gehienez 30x40 cm.koa. Bestalde, argazki guztiek 30x40 cm.ko kartulina euskarrietan joan beharko dute.

Lanak urriaren 8a baino lehen aurkeztu beharko dira, eta epaimahaiak urriaren 15ean emango du jakitera bere erabakia. Sari banaketa egun berean izango da, arratsaldeko 19:00etan, Monte-rion Kultura Etxean.

**Monte  
taberna**

Maalako arrabala, 11  
Tel.: 943 79 20 56



MARKO-JARTZEAK

**ALDEDI**

Biteri, 8 • ARRASATE

Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84

*Spek*  
Denda

Iturriotz, 19 (Herriko plaza) ARRASATE



Behi Bi's antzerki taldea egongo da Kaleidoskopioan.



Karmele Zuazubiskarren saioan Josu Otadui izango da.

# Josu Otadui aste honetan Aurrez aurren

Karmele Zuazubiskarrek aurkezten duen Aurrez aurre saioan aste honetan Josu Otadui izango da. Datorren asteartean 79 urte beteko dituen mondragotar hau errementaria izan zen ogibidez, bere aita zena moduan. Hala ere, 1957an kooperatiban hasi zen lanean eta hor aritu zen erretiratu bitartean. Gerra Zibilean gudari sartu nahi izan zuen,

baina gazteegia zela eta, ez zioten utzi. Hemezortzi urterekin ere kartzela ezagutu zuen...

Honetaz gain, euskaltzale amorratua ere bada Josu. Lehengo eta oraingo kontuez berrikeran arituko dira asteazkenean.

ATBn, gaueko 21:30etatik aurrera.

## ANTZERKIA ETA TXOTXONGILOAK

Ane Garmendia beasaindarrak eta Patrizia Franko abadiñoarrak osatzen dute Behi Bi's antzerki taldea eta aste honetan Kaleidoskopioa saioan izango ditugu zuzenean. Behi Bi's antzerki taldea duela zazpi urtetik hona ari da antzerki-

gintzan eta gaur egun horixe da beraien ogibidea. Behi Bi's taldeak haurrentzat egiten ditu antzezlanak. Hala ere, aurrerantzean nagusientzako antzezlanen bat egiteko asmoa ere badute. Honen guztiaren berri izan nahi baduzu, piztu ATB ostegunean, 21:30etan.

## ■ ATBren programazioa

LARUNBATA, 8	ASTELEHENA, 10	ASTEARTEA, 11	ASTEAZKENA, 12	OSTEGUNA, 13	OSTIRALA, 14
<p>13:30 Asteko programarik interesgarrien errepika: Munduari bueltaka, San Andresko jaiak, Kaleidoskopioa, Soinuz Blai eta Astebete.</p>	<p>13:30 Albiste aurrerapena.</p> <p>13:35 Astebete errepika.</p> <p>20:00/20:30/21:00 Berriak.</p> <p>21:30 Mondrasport Itxaro Zubillaga kazetariak aurkezturik, asteburuko kirolei errepassoa.</p>	<p>13:30 Albiste aurrerapena.</p> <p>13:35 Mondrasport (errepika).</p> <p>19:20 Jolasplast. Mikel Lizarralde aurkeztutako haur jolasen saioa.</p> <p>20:00/20:30/21:00 Berriak.</p> <p>21:30 Musiklasik. Marta Izagirre eta Iñaki Olaizolak aurkeztutako musika saioa.</p>	<p>13:30 Albiste aurrerapena.</p> <p>13:35 Musiklasik (errepika).</p> <p>20:00/20:30/21:00 Berriak.</p> <p>21:30 Aurrez-aurre. Aste honetako gonbidatua Josu Otadui arrasatearra.</p>	<p>13:30 Albiste aurrerapena.</p> <p>13:35 Aurrez-aurre (errepika).</p> <p>20:00/20:30/21:00 Berriak.</p> <p>21:30 Kaleidoskopioa. Aitziber Langaranek eta Unai Iparragirrek aurkeztutako saioa. Aste honetan Behi Bi's antzerki eta txotxongilo taldea izango da.</p> <p>22:00 Soinuz Blai. Iban Gonzalezek aurkezten duen musika saioa.</p>	<p>13:30 Albiste aurrerapena.</p> <p>13:35 Kaleidoskopioa (errepika).</p> <p>20:00/20:30/21:00 Berriak.</p> <p>21:30 Astebete. Asteazkenean zehar gertatu diren albiste garrantzitsuenen errepassoa Maider Osak aurkezturik.</p> <p>22:00 Soinuz Blai. Iban Gonzalezek aurkezturiko musika saioa.</p>



Itxaro Zubillaga.

## ETXEBIZITZAK

### 1. Saldu

• Etxebizitza salgai Elorregi auzoan, Bergaran. Tel.: 943 76 07 47.

• Etxebizitza salgai Bergarako erdigunean, 70 m<sup>2</sup>. Tel.: 943 76 15 40.

### 3. Errentan emateko

• Gela bat daukat alokatzeko erdialdean. Tel.: 943 79 68 00.

• Zarautzen etxebizitza alokatzen da. Uztaillean edo abuztuan. Hiru logela, egongela eta bi komun. Tel.: 943 83 12 53.

### 4. Errentan hartzeko

• Bikoteak etxebizitza alokatuko luke. Tel.: 943 65 45 40 / 943 72 30 25 (20:00etatik 22:00etara).

• Etxebizitza nahi dugu alokatu. Arrasaten edo inguruan. Tel.: 94 447 04 61.

• Gela alokagai erdialdean. Tel.: 943 79 87 59. Teresa.

### 5. Etxeak osatzeko

• Etxebizitza osatzeko laguna behar da, Jauregibarrí kalean (Erguin). Tel.: 943 79 27 64 (gauez).

• Gela bat alokatuko nuke erdialdean. Tel.: 943 79 68 00.

• Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da Arrasate erdian. 943 79 59 60. Ramon.

## GARAJEAK

### 7. Saldu

• Garajea salgai Kontzezinon. Tel.: 943 79 54 07.

• Garaje itxia salgai Larrea aldean. 2 m<sup>2</sup>, eta bi autorentzako lekua dauka. Tel.: 943 79 69 41. (Mari).

• 15 m<sup>2</sup>ko garaje itxia salgai Larrea kalean. Tel.: 943 79 14 77.

• Garaje itxia salgai Iturripe eta Eskola Politeknikotik gertu. 20 m<sup>2</sup>. Tel.: 943 79 34 70.

### 9. Errentan emateko

• Garaje itxia alokatzeko, Urribarri Etorbidean. Tel.: 943 79 35 24.

## ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

## GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

## LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

## LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

## IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

## MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

## DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

## HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



# 943 71 25 11

ARRASATE PRESS • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Press ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

• Garaje itxia alokatzen da Erguin auzoan. Tel.: 943 79 13 97.

• Garaje bikoitza alokagai. Tel.: 943 79 13 56. Josu.

• Garaje itxia alokatzen da Musakola aldean. Tel.: 943 77 16 03.

• San Andres auzoan garaje lekuak salgai. Tel.: 608 77 07 86.

### 10. Errentan hartzeko

• Garaje bat alokatuko nuke Olarte kalean. Tel.: 79 16 39.

## LOKALAK/ORUBEAK

### 12. Saldu

• Kalealdean, baina Zarugaldetik gertu 100m<sup>2</sup>ko bi solairu dituen tokia salgai. Tel.: 943 79 07 24.

• 60 m<sup>2</sup> zabal eta 4 metro garai den lokala salgai edo alokagai. Erdialdean, argitsua. Gaur egun ile apaindegí eta edertze areto bezala erabiltzen da. Bitartean 17. eskuina. Tel.: 943 77 12 70.

### 14. Errentan emateko

• Lanean dabilen taberna alokatzen da Urribarri etorbidean. Tel.: 943 79 95 24 / 943 79 23 81.

• Toki bat alokatzen da Anboto kalean. 75 m<sup>2</sup> ditu. Tel.: 943 79 98 07 (gaueko 21:00etatik aurrera).

• Bi toki alokatzeko, 120 eta 130 m<sup>2</sup>koak, batera edo bakarka, San Andreseko industria pabilioietan. Tel.: 608 77 07 86.

### 15. Errentan hartzeko

• Gazte talde batek toki bat alokatu nahiko genuke Arrasaten. Tel.: 943 79 40 65 (Maitane).

• Garaje edo toki txiki bat alokatuko genuke. Tel.: 943 79 72 93.

## LANA

### 17. Eskaintza

• Andra euskalduna prest etxeko lanak egin, umeak zaindu edo jende heldua zaintzeko. Tel.: 943 79 07 73.

• Esperientziadun emakumea prest

adineko pertsonak zaintzeko. Tel.: 943 77 04 60.

• Emakume bat prest pertsona nagusiak zaintzeko. Esperientziaduna. Tel.: 943 77 04 60. Margari.

• Neska euskalduna etxeko lanak egin, umeak zaindu eta pertsona nagusiak zaintzeko prest. Orduka edo egun osoz. Interesatuak deitu: 943 79 45 16. Bego.

• Esperientziadun emakumeak umeak zainduko lituzke, goizez eta arratsaldez. Tel.: 943 79 97 11. Conchita.

### 18. Eskaerak

• Emakume euskaldun arduratsua behar da umea zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 943 77 05 77.

• Pertsona euskalduna behar da zerbitzari lanak betetzeko. Tel.: 945 44 50 86.

• Jatetxe batean mahaiak zerbitzeko neska behar da asteburu eta jai egunetarako. Tel.: 71 64 70.

• Neska behar da fruta denda batean lan egiteko. Tel.: 943 77 01 79.

• Ile apaindegí laguntzaile bat behar da, asteburuetarako. Tel.: 943 77 19 44.

• Emakume bat behar da pertsona nagusiak zaintzeko. Harremanetarako dei telefono hauetara: 943 79 66 96 edo 943 79 94 58 (19:00etatik 20:00etara)

• Zazpi urteko esperientzia duen jate-txe zerbitzaria lana egiteko prest. Tel.: 943 77 08 13. Carmen.

## IRAKASKUNTZA

### 20. Eskaintzak

• Margolaritza eskolak ematen ditut, marrazki artistiko eta olio estiloetan. Gaztetxean galdetu.

• Biologian lizentziadunak kimika eta matematikako eskola partikularrak emango lituzke. Tel.: 943 79 16 39. Amaia.

• Lehen eta bigarren heziketarako eskola partikularrak ematen dira. Tel.: 943 79 83 46.

### 21. Eskaerak

• Marrazketako eskolak hartuko genituzke, COU eta FP2ko mailakoak. Tel.: 943 79 25 94.

• Eskola partikularrak. DBH 4. mailako matematikak hartzeko. Tel.: 943



79 04 89. Idurre.

• Eskola partikularrak emango lukeen neska bat behar da. DBH 3. mailan. Tel.: 943 79 62 08.

• ESOko 1. mailako eskola partikularrak emateko pertsona bat behar da. Tel.: 943 79 60 01.

**MOTORRA**

**23. Saldu**

• Ford Courier 1.800 diesel salgai. Matrikula: SS - AN. Deitu 943 79 82 09 telefonora.

• Trialeko motorra salgai. (Beta-250 c.c.) Oso egoera onean. 225.000 pta. Tel.: 943 76 19 88 (gauez).

• Aprilia SR 50 motorra salgai, ia berria eta bermearekin. Tel.: 649 67 28 54.

• Auto bat salgai Super 5 7-L 1.500. Matrikula SS-AD. Tel.: 943 79 65 43.

• Opel Corsa 16 autoa salgai. Matrikula: V-K. Tel.: 609 28 65 82. 20:00etatik aurrera.

• Yamaha YZ Motocross salgai. 94. urtekoa da, egoera onean dago eta 300.000 pta.tan saltzen dut. Tel.:

943 79 78 36. Unai.

• Peugeot 309, GTI(SS-Z) saltzen dut. Tel.: 943 79 74 65 edo 619 812 090, prezio onean.

• Opel Calibra 2-0i 559203AL salgai. Tel.: 943 71 41 13.

• Motorra salgai. Suzuki GSX 750R. Tel.: 943 79 70 96. Felix.

**DENETARIK**

**26. Saldu**

• Lehen Jaunartzerako soinekoa salgai. Behin bakarrik erabilia. Prezioa negoziatzeko. Tel.: 945 27 99 16. 20:00etatik. 22:00etara.

• Toldoa duen eta 2-4 pertsonarentzat den kanpin denda berria salgai. Tel.: 943 74 05 37. Mila.

• Auñamendiren Euskal Herriko Entziklopedia orokorra ilustratua salgai. Prezio onean eta egoera ezin hobean. Tel.: 943 79 12 95.

• Karabanako ispilu pare bat salgai. Ia berriak daude eta 5.000 pta balio dute. Tel.: 943 78 12 73. Jaione.

• Pentax Z-1 argazki kamera, 28-80 objektiboduna, eta FTZ-400 flasha sal-

tzen ditut. Oso gutxitan erabilia. Tel.: 943 79 21 35.

• Euskal artzai zakurra, arra, salgai. Tel.: 943 78 34 79.

• Tamaina handiko Conver-13 bat salgai, 8 bat urtekoa, ongi mantendua eta prezio onean. Tel.: 943 79 22 28.

**27. Erosi**

• 2. eskuko trikitixa erosiko nuke. Tel.: 943 71 50 87.

**29. Eman**

• Lau katakume oparitzeko. Nahi duenak, deitu 943 79 97 84 telefonora. Xabi.

**31. Galdu**

• Martxoaren 27an Canon markako argazki kamera galdu nuen Ostarkun. Tel.: 943 77 09 56 (Tania)

• Telefono mugikor bat galdu da Alcatel markakoa eta gris kolorekoa: Monterron aldean galdu zen, apirilaren 14an. Aurkitzen duenak deitu 943 79 52 08 telefonora. Eskertuko da.

• Bi txakur galdu dira, bata seterra txuri eta kanela kolorekoa eta bestea pointer zuri-beltza. Sarituko da. Tel.: 943 79 20 24.

• Zigorrola eta San Andres artean urrezko belarritako bat galdu nuen (harri urdin eta zuri batekin) Maiztaren Lehenean. Tel.: 943 79 65 45

**32. Aurkitu**

• Uribarri inguruan katu zuria topatu dugu. Jabeak dei egun dezake 943 79 51 21 telefonora.

**33. Bestelakoak**

• Goxoki denda bat alokatzen da Kontzeziño kalean. Tel.: 943 77 10 97. 21:00etik aurrera.

**HARREMANAK**

**37. Bestelakoak**

• Orrialde hauetako irakaskuntza saileko eskaeretan agertzen den "gaztelaniazko eskolak hartuko nituzke" iragarkiarekin deia hartu zuenak, mesedez deitu berriz ere 943 79 79 12 telefonora

**“GAZTEAK ETA 2000. URTEA”  
X. ARGAZKI LEHIAKETA**



Adela Lirón de Robles (Donostia)

**BI KATEGORIA**

- A) Deba Garaiko 14-18 urte bitarteko gazteak
- B) 19-35 urte bitarteko edozein

**SARIAK**

- A) **kategoria:** (modalitatea bereiztu gabe)
  - 1. saria: argazkimakina (reflex)
  - 2. saria: argazkimakina (konpaktoa)
- B) **kategoria:**
  - zuri-beltzean
    - bildumarik onena: 75.000 PTA
    - argazkirik onena: 50.000 PTA
  - koloretan
    - bildumarik onena: 75.000 PTA
    - argazkirik onena: 50.000 PTA

**Emakume Sailaren saria: 50.000 PTA**


Lanak  
aurkezteko epea:  
**URRIAK 8**



ARRASATEKO UDALA

Gazteria Saila ■  
Emakume Saila ■

Informazio gehiago eia arauak Gazte Bulegoan



**4** 27 lagun daude argazkian, 1960-1961. urteko promozio oso-osoa hain zuzen ere. Colegio San Jose zen bere orduko izena, orain San Viator Ikastola dena. Mutilentzako eta pribatua zen eskola. Agertzen diren guztien izenak ipintzea ezinezkoa denez, goi

partearen agertzen diren fraile irakasleenak eta noski, boro-borean agertzen den mutikoa-orenak jarriko ditugu. Ezkerretik eskumara lehenengo laukotea dira: Jose Antonio Diez anaia, Jesus Mesanza anaia, Victoriano Rodriguez anaia eta Valeriano Alvarez anaia. Ondoko boskotean, berriz, ezkerretik eskumara: Pablo


Villar anaia, Ignacio Villar anaia, eskolako zuzendaria zen Clemente López Cano anaia, Graciano San Martin anaia eta Jose Maria Apellaniz anaia. Mutikoa, oster, Ramon Osinaga.

Kontatu digutenez, orduko garaian, Gasteiztik frutak zekartzan kamioia etortzen zen eskola ondora saltzera.


Eskolako mutikoen "bisita" egiten zioten fruta saltzaileari, kamioiko fruta bat edo beste dastatuz (doan, noski).

-----  
*Argazkia:*  
Ramon Osinaga

*Berriemateak:*  
Angel Ipiña, Juan Paulo Alberdi eta Jose Mari Lasa.



**MURU**



HONDA  
motorrak

AUTO KONPONKETAK

2. solairua laster zabalik

- Motorren salmenta eta konponketa
- Honda zerbitzua

Araba Etorbidea, 3  
Tel.: 943 79 27 16




**AGR Dekorazioa**

Mota guztietako zoruak • Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak • Egurrezko, aluminiozko eta PVCzko leihoak • Ateak Eskailerak • Armairu enpotratuak ...

MATERIALEN SALMENTA

**Erakusketak eta biltegia:**  
Kale Txiki, 3 - behea • ARRASATE  
Tel.: 943 77 11 20 • Faxa: 943 77 11 20



Biltegia eta bulegoak: Meatzerreka, 6 • Tel./Faxa: 943 79 14 28 • ARRASATE  
Erakusketa: Ignacio Zuloaga, 4 • Tel.: 943 79 07 20 • ARRASATE

**Laster erakustoki berria, Ignacio Zuloagan**

Eskolan 4,9 batekin  
juxtu -juxtu gaintitzen nuen.  
institutuan 4,9 batekin  
batzuetan gaintitzen nuen.  
fakultatean 4,9 batekin  
beti huts egiten nuen.  
eta orain, ez dute bada esaten  
4,9 autoa bikaina dela!

zu gehiagoren bila zabiltzalako

fordfocus TDdi berria

Bere alorrean puntuaziorik  
altuena lortu du seguritatean

El Mundo "Motor y Viajes" 99-02-20



Izatez, 4,9 litro 100 km bakoitzeko bikaina ezezik bere **alorreko lider** bihurtzen du. ford focus TDdi berria da. injekzio zuzeneko gure diesel motorren teknologia berrienari esker, focus berria da kontsumorik baxuena duena. zerbitzurik gorenei uko egin gabe, 0tik 100era 12,4 segundutan, erantzuteko arintasuna eta erosotasuna. ford focus TDdi berria iritsi da, 1999 urteko autoa. gida ezazu eta zeure itxaropenak betiko aldatuko dira.



Mugarri Autoak, Araba Etorbidea z/g • ARRASATE • Tel.: 943 79 07 44 / 943 79 07 54